

Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.

Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

Esta acta se complementa con la grabación de las imágenes y audio de la sesión.

El código de identificación del archivo resultante es el siguiente:

bd7b4772617eb619f55faaac2784ad025fed923b9a5a59790c8acbd03059d852

Lotura honetan dago:

Está en este enlace:

<https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

### **2025.06.26**

| <b><u>TOLOSAKO UDALBATZAK 2025EKO EKAINAREN 26AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA</u></b>                                                                                                                                                                                                               | <b><u>ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA CELEBRADO EL DÍA 26 DE JUNIO DE 2025</u></b>                                                                                                                                                                                                                                                            |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Tolosako Udaletxean, 2025eko ekainaren hogeita seian, 18:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Angel Martinez de Rituerto Arregui izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira: | En el Ayuntamiento de Tolosa, siendo las 18:30 horas del día veintiséis de junio de 2025, tras la primera convocatoria, se reúne la Corporación para celebrar Pleno Ordinario. Presidida por el alcalde-presidente, Angel Martinez de Rituerto Arregui, y con la asistencia de los siguientes miembros de la Corporación municipal, para tratar el orden del día: |

#### **Alkate-lehendakaria / Alcalde-presidente:**

Angel Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)

#### **Bertaratutako Zinegotziak / Concejales asistentes:**

Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte(EH BILDU)  
Goiuri Eceiza Arandia(EH BILDU)  
Ander Figuerido Zubiria(EH BILDU)  
Miren Yosune Sanz Vidal(EH BILDU)  
Aitor Aguirresarobe Murgui(EH BILDU)  
Cristina Pelaez Errazquin(EH BILDU)  
Aitzol Luis Garcia Azurmendi (EH BILDU)  
Miren Garbiñe Marzol Ormazabal(EH BILDU)

Xarles Iturbe Pasaban(EAJ-PNV)  
Miren Biotxa Aguirre Ugalde(EAJ-PNV)  
Maria Leire Zubeldia Rezola(EAJ-PNV)  
Javier Francisco Zabala Sastre(EAJ-PNV)  
Ainhoa Dominguez Landa(EAJ-PNV)  
Jose Francisco Amantegui Zubiria (EAJ-PNV)  
Iker Uson Gonzalez(EAJ-PNV)  
  
Jose Maria Villanueva Telleria (PSE-EE-PSOE)

#### **Idazkari akzidentala / Secretario accidental:**

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

#### **Kontuhartzaile akzidentala /Interventor accidental:**

Paulino Alonso Eraso

| <u>Eguneko gai-zerrenda</u>                                                                                                                                                                                       | <u>Orden del día</u>                                                                                                                                                                                                                         |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>A) AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA</b>                                                                                                                                                                         | <b>A) APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR.</b>                                                                                                                                                                                         |
| <b>1. puntua.</b> Onartzea, hala badagokio, 2025eko maiatzaren 29an egindako aurreko ohiko bilkuraren (5/2025) akta.                                                                                              | <b>Punto 1.</b> Aprobar, en su caso, del acta de la sesión anterior (5/2025), ordinaria, celebrada el día 29 de mayo de 2025.                                                                                                                |
| Espedientearen kodea: 2025IPLE0005.                                                                                                                                                                               | Código de expediente: 2025IPLE0005.                                                                                                                                                                                                          |
| <b>B) EBAZPEN-ATALA</b>                                                                                                                                                                                           | <b>B) PARTE RESOLUTIVA</b>                                                                                                                                                                                                                   |
| <b><u>Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorra.</u></b>                                                                                                                                          | <b><u>Comisión Informativa Permanente del Ámbito de Trabajo de Organización.</u></b>                                                                                                                                                         |
| <b>2. puntua.</b> Onartzea, hala badagokio, Udaltzaingoko ofizialorde-lanpostuaren balorazio-berrikuspenaren irizpena.                                                                                            | <b>Punto 2.</b> Aprobar, en su caso, del dictamen de revisión de valoración del puesto de suboficial de Policía Local.                                                                                                                       |
| Espedientearen kodea: 2025PLBB0006.                                                                                                                                                                               | Código de expediente: 2025PLBB0006.                                                                                                                                                                                                          |
| <b>3. puntua.</b> Onartzea, hala badagokio, Trafikoko koordinatzaile-lanpostuaren balorazio-berrikuspenaren irizpena.                                                                                             | <b>Punto 3.</b> Aprobar, en su caso, del dictamen de revisión de valoración del puesto de coordinador/a de Tráfico.                                                                                                                          |
| Espedientearen kodea: 2025PLBB0007.                                                                                                                                                                               | Código de expediente: 2025PLBB0007.                                                                                                                                                                                                          |
| <b>4. puntua.</b> Onartzea, hala badagokio, udaltzain-lanpostuaren balorazio-berrikuspenaren irizpena.                                                                                                            | <b>Punto 4.</b> Aprobar, en su caso, del dictamen de revisión de valoración del puesto de policía municipal.                                                                                                                                 |
| Espedientearen kodea: 2025PLBB0008.                                                                                                                                                                               | Código de expediente: 2025PLBB0008.                                                                                                                                                                                                          |
| <b>5. puntua.</b> Onartzea, hala badagokio, irizpen hau: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari eskaera egitea Tolosako udalerria bizitegi-merkatu tenkatuko eremu izendatzeko. | <b>Punto 5.</b> Aprobar, en su caso, del dictamen para solicitar al Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes del Gobierno Vasco la declaración del municipio de Tolosa como zona de mercado residencial tensionado. |
| Espedientearen kodea: 2025ETEN0001.                                                                                                                                                                               | Código de expediente: 2025ETEN0001.                                                                                                                                                                                                          |

**Lurraldea Lan Esparruko Informazio**  
**Batzorde Iraunkorra**

**6. puntua.** Onartzea, hala badagokio, Tolosako Irigarritasun Unibertsalaren Plan Integralaren irizpena.

Espedientearen kodea: 2024H1310008.

**7. puntua.** Onartzea, hala badagokio, expediente hau amaitzea: «Tolosako HAPOko Ondarearen Udal Katalogoan hiriguneko hainbat txalet tipologiako eraikinak, bizitegi-eraikin kolektibo zein eraikin instituzionalak barneratzeko espedienteari hasiera ematea eta, horietan, hirigintzako lizentzia-emateak etetea».

Espedientearen kodea: 2024H10900001.

**Herritarrak Lan Esparruko Informazio**  
**Batzorde Iraunkorra**

Ez du ezer aurkeztu.

**Proposamenak**

**8. puntua.** EAJ/PNV Udal taldeak aurkeztutako proposamena: Uzturreko gurutzea Tolosako Udalaren Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren «3. Katalogoan» dokumentuan sartzea.

**9. puntua.** EAJ/PNV eta PSE-EE/PSOE Udal taldeek aurkeztutako proposamena: Datorren urteko aurrekontuei begira (2026.urtea) Tolosako Udalak konpromiso bat hartzea Oriako Txirrindularitza Eskolak Jose Mari Anza Memoriala antolatzeke baliabide nahikoak izan ditzan.

**10. puntua.** EAJ/PNV Udal taldeak aurkeztutako proposamena: Udal mailako larrialdietarako plangintza integral baten diseinu eta idazketaren beharra.

**Comisión Informativa Permanente del Ámbito de Trabajo del Territorio**

**Punto 6.** Aprobar, en su caso, del dictamen del Plan Integral de Accesibilidad Universal de Tolosa.

Código de expediente: 2024H1310008.

**Punto 7.** Aprobar, en su caso, la finalización del siguiente expediente: Iniciar el expediente de inclusión en el catálogo municipal del patrimonio del PGOU de Tolosa de edificios de diversa tipología de chalets, edificios residenciales colectivos e institucionales en el casco urbano, suspendiéndose el otorgamiento de licencias urbanísticas en los mismos.

Código de expediente: 2024H10900001.

**Comisión Informativa Permanente del Ámbito de Trabajo de la Ciudadanía**

No presenta nada.

**Proposiciones**

**Punto 8.** Proposición presentada por el Grupo Municipal EAJ/PNV: Para la inclusión de la Cruz de Uzturre en el documento «3. Catálogo» del Plan General de Ordenación Urbana del Ayuntamiento de Tolosa.

**Punto 9.** Proposición presentada por los grupos municipales EAJ/PNV y PSE-EE/PSOE: Que de cara a los presupuestos del año que viene (año 2026), el Ayuntamiento de Tolosa se comprometa a dotar a la Escuela de Ciclismo de Orio de los recursos suficientes para organizar el Memorial Jose Mari Anza.

**Punto 10.** Proposición presentada por el Grupo Municipal EAJ/PNV: Necesidad de diseño y redacción de un plan integral de emergencias a nivel municipal.

### C) INFORMAZIO- ETA KONTROL-ATALA

**11. puntua.** Alkateak eta zinegotzi delegatuek emandako dekretuen berri ematea.

**12. puntua.** Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien berri ematea.

**13. puntua.** Galderak eta eskaerak.

### C) PARTE DE INFORMACIÓN Y CONTROL

**Punto 11.** Dar cuenta de los decretos dictados por el alcalde y concejales/as delegados/as.

**Punto 12.** Dar cuenta de los acuerdos adoptados por la Junta de Gobierno Local.

**Punto 13.** Ruegos y preguntas.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

El alcalde-presidente da inicio al pleno para tratar los siguientes asuntos:

**1. PUNTUA. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, 2025EKO MAIATZAREN 29AN EGINDAKO AURREKO OHIKO BILKURAREN (5/2025) AKTA.**

Izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

**PUNTO 1. APROBACIÓN, EN SU CASO, DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR (5/2025), ORDINARIA, CELEBRADA EL DÍA 29 DE MAYO DE 2025.**

Han examinado el acta mencionada en el título. Aprobada por unanimidad por los miembros de la Corporación.

**2. PUNTUA. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO,  
UDALTZAINGOKO OFIZIALORDE-  
LANPOSTUAREN BALORAZIO-  
BERRIKUSPENAREN IRIZPENA.**

**PUNTO 2. APROBACIÓN, EN SU CASO, DEL  
DICTAMEN DE REVISIÓN DE VALORACIÓN  
DEL PUESTO DE SUBOFICIAL DE POLICÍA  
LOCAL.**

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2025eko ekainaren 18ko irizpena.

**IKUSIRIK**

**Lehena.-** Tolosako udalbatzak 2022ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, lanpostuen katalogoa, balorazioa, sailen organigrama eta Lanpostu zerrenda behin-betiko izaeraz onartu zuen.

**Bigarrena.-** Udalbatzak 2024ko abenduaren 23an lanpostuen balorazioa berrikusteko araudia hasierako izaeraz onartu zuen. Hasierako onarpen hori jendaurrean jarri eta interesdunei entzunaldia eman ondoren, ez ziren erreklamazioak aurkeztu; hortaz, 2025eko martxoaren 27an behin-betiko izaeraz argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari ofizialean.

**Hirugarrena.-** Araudian zortzigarren puntuan adierazten den moduan, urtero udal gobernuak plangintza bat egingo du eta bertan, berrikusiko diren lanpostuen zerrenda eta kronograma bat onartuko du, zehaztuaz berrikusiko diren lanpostuak.

**Laugarrena.-** Tokiko Gobernu batzarrak 2025eko martxoaren 25ean egindako bileran, 2025 urterako plangintza onartu zuen eta ofiziozko berrikuspenaren barnean, ez-ohiko prozeduran, besteen artean, "Udaltzaingoko Ofizialorde" lanpostua erabaki zen.

**Bosgarrena.-** Giza Baliabideetako zinegotzi delegatuak, 2025eko maiatzaren 7ko probidentziaren bidez, lanpostu honen balorazioaren berrikuspen prozedurari hasera ematea erabaki zuen.

**Seigarrena.-** Giza Baliabideetako arduradunak 2025eko maiatzaren 16an egin zuen proposamena eta saileko arduradun eta ordezkari politikoari jakinarazi zen, iradokizunak aurkezteko aukera emanaz.

**Zazpigarrena.-** 2025eko maiatzaren 26an Udaltzaingoko Ofizialak alegazio bat egin du Giza baliabideetako arduradunak egindako proposamenari. Era berean, Giza Baliabideetako arduradunak maiatzaren 30ean proposamen berri horri erantzun dio.

**Zortzigarrena.-** 2025eko ekainaren 11an balorazio berrikuspen batzordean gaia tratatu eta negoziatu da, gaia gehiengoz (Lehendakariaren kalitatezko botoarekin) onartu delarik.

## GAIAREN AZTERKETA ETA PROPOSAMENA

**Lehena.-** 2025eko maiatzaren 16an Giza Baliabideetako arduradunak Udaltzaingoko Ofizial ordearen funtzioak zehazteko eskaera luzatu zion eta Ofizialak lanpostu honi dagozkion funtzioak zehaztu zituen, hauexek hain zuzen ere:

### Erantzukizun orokorrak:

- Ofizialek egin beharreko eginkizunak gainbegiratzeko lanak egitea.

### Lan esanguratsuenak:

#### LANGILEAK GAINBEGIRATZEA ETA KONTROLATZEA:

1. Udaltzaingoaren ofizial-buruaren jarraibideak eta aginduak helaraztea, eta ezarritako prozeduraren arabera betetzen direla zaintzea.
2. Eraginkortasuna eta errendimendua hobetzeko lan-metodoak proposatzea.
3. Udaltzaingoaren ofizial-buruari operazio-laguntza bermatzea, beharrezkoa den guztietan.
4. Ordu osagarriak, oporrak, gehiegizko lanorduak, baimenak eta abar gainbegiratzeko.
5. Zerbitzu operatiboko planak, prozedurak eta protokoloak egitea.
6. Saileko langileek beharrezko ekipamendua eta materiala izan dezaten beharrezko kudeaketak egitea.
7. Ibilgailuak, ekipoak eta uniformeak ikuskatzeaz arduratzea, ezarritako prozeduraren arabera.
8. Polizia-aplikazioko lege- eta erregelamendu-aldaketen berri ematea lehen mailako agenteei.
9. Eman beharreko zerbitzuaren zuzendaritza bere gain hartzea, garrantziagatik edo tamainagatik hala eskatzen duenean.
10. Herritarren eskaerei erantzutea eta izapidetzea.
11. Hiru hilean behin protokolo-bilerak egitea Genero Indarkeriaren Mahaian.
12. Armaren erabilera; armen inguruko tramitazio administratiboa, tiro ikastaroaren kudeaketa beste erakundeekin, armen arau-hausteen kontrola, armen giltza/sarbidearen jarraipena eta kontrola eta behar diren elementuen erosketak.

#### BESTE BATZUK:

13. Galdutako eta/edo lapurtutako bizikleten kontrola eramatea, eta horiei harrera eta irteera kontrolatzeko fitxak egitea.
14. Herritarrei arreta eta informazioa ematea, pertsonalki eta telefonoz, beren eskumeneko gaietan.
15. Hiru hilean behin protokolo-bilerak egitea Genero Indarkeriaren Mahaian.
16. Animalien erregistroa aurrera eramatea eta eguneratua mantentzea.
17. Tolosako enpresen zein komertzio eta denden erregistroa sortzea eta eguneratua mantentzea.
18. Udaltzaingoko ofizial-buruaren eginkizunak betetzea hura ez dagoenean.

#### EGINKIZUN KOMUNAK:

19. Arloa hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.
20. Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.
21. Unitatera/arlora atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.
22. Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edota eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.

23. Arloan dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egokia dela begiratu eta zaintzea.
24. Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, aldez aurretik horretarako jarraibideak jasota.

**Bigarrena.-** Balorazio berrikuspen honetan hainbat funtzio txertatu bazaizkio ere (hain zuzen ere 12, 16 eta 17 puntuetan agertzen direnak), beste batzuk kendu zaizkio, hau da, trafikoari dagozkion funtzioak beste lanpostu batean txertatu dira. Honela, lanpostuaren berrikuspen orokor bat egin ondoren, ez daude elementurik balorazio aldaketa bat egiteko, izan ere funtzioak eta erantzukizunak bere horretan mantentzen bait dira.

**Hirugarrena.-** Honen ondorioz, lanpostuaren balorazio proposamena burutzen da:

| <u>Faktorea</u>    | <u>Egungo balorazioa</u> | <u>Balorazio proposamena</u> |
|--------------------|--------------------------|------------------------------|
| Espezializazioa    | 150                      | 150                          |
| Esperientzia       | 100                      | 100                          |
| Agintea            | 100                      | 100                          |
| Oihartzuna         | 200                      | 200                          |
| A. intelektualak   | 75                       | 75                           |
| A. Fisikoa         | 0                        | 0                            |
| Nekagarritasuna    | 25                       | 25                           |
| Arriskugarritasuna | 25                       | 25                           |
| Lanaldia           | 50                       | 50                           |
| Dedikazioa         | 150                      | 150                          |

Honetaz gain, lanpostu honek urtean 1.685 ordutako lanaldia du.

Bestalde, berrikuspena egin ahal izateko, ofiziozko ez-ohiko prozedurari dagokionean, haxe da arautegiak xedatzen duen

### BERRIKUSPEN PROZEDURA

Lanpostuen balorazioaren berrikuspen prozeduraren barnean, ofiziozko ez ohiko berrikuspenak honako prozedura finkatzen du bere 10.2 puntuan:

“

- a) *Giza Baliabideak Azpisailak, zinegotzi delegatuak (edo alkateak, hala badagokio) aginduta, lanpostuaren funtzio/zereginen eta balorazioaren proposamena aurkeztuko du, gehienez hilabete bateko epean, zinegotziaren probidentziaren dataren biharamunetik kontatzen hasita.*

- b) *Proposamena jakinaraziko zaie dagokion saileko arduradunei (politikoari zein teknikoari), iradokizunak aurkez ditzaten hamabost laneguneko epean, proposamena jasotzen duten egunaren biharamunetik kontatzen hasita.*
- c) *Giza Baliabideak Azpisailak aztertuko ditu aurkeztu diren iradokizunak, eta balorazioaren proposamena egingo du, dagokion izapidetzea egin dadin. Horretarako, hamabost laneguneko epea izango du, azken iradokizuna jasotzen duen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.*
- d) *Proposamena langileen ordezkaritzari jakinarazi behar zaio, eta ondoren negoziatu behar da dagokion Balorazio Batzordean. Horretarako, dokumentazioa helaraziko zaio zazpi egun lehenago; dena den, epe hori beste zazpi lanegunez luzatu ahal izango da ordezkari sindikalek horrela eskatuz gero.*
- e) *Proposamenak gastua handitzen badu, kontu-hartzailearen fiskalizazioa beharko du.*
- f) *Balorazio Batzorde Iraunkorrak egindako proposamena Antolakuntza Informazio Batzordeari bidaliko dio, irizpen-proposamen gisa, Giza Baliabideak Azpisailak txostenarekin batera. Ondoren, Udalbatzak dagokion ebazpena emango du.*
- g) *Kasu guztietan, ebazpena interesdunari, saileko arduradunari eta langileen ordezkaritzari jakinaraziko zaie. Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta web orrian argitaratuko da.*
- h) *Lanpostuari dagokion balorazio berria indarrean sartuko da Udalbatzaren ebazpena administrazio-bidean irmoa denetik, eta salbuespenezko eta justifikaturiko moduan, Udalbatzak finkatzen duen unetik."*

## ORDEZKARITZA SINDIKALAREKIN NEGOZIAZIOA

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 37.1 artikulua b) atalean xedaturikoaren arabera, funtzionarioen berariazko osagarrien zehaztapenak eta aplikazioa pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan eta lege dagokion hedaduraz. Zentzu horretan, balorazio berrikuspen hau ordezkari sindikalekin negoziatu da 2025eko ekainaren 11an.

## ONARTZEKO PROZEDURA

- Batetik apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 i) artikularen arabera, Udalbatzak eskuduntza du gai hau onartzeko.
- Bestetik, prozedurari dagokionez, behin udalbatzak onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko web orrian argitaratuko da.

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2025eko ekainaren 18an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko bozkak:** Cristina Pelaez Errazquin, Miren Yosune Sanz Vidal, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal eta Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**Lehena.-** “Udaltzaingoko Ofizial ordearen” funtzioak onartzea, hauexek hain zuzen ere:

### Erantzukizun orokorrak:

- Ofizialek egin beharreko eginkizunak gainbegiratzeko lanak egitea.

### Lan esanguratsuenak:

#### LANGILEAK GAINBEGIRATZEA ETA KONTROLATZEA:

1. Udaltzaingoaren ofizial-buruaren jarraibideak eta aginduak helaraztea, eta ezarritako prozeduraren arabera betetzen direla zaintzea.
2. Eraginkortasuna eta errendimendua hobetzeko lan-metodoak proposatzea.
3. Udaltzaingoaren ofizial-buruari operazio-laguntza bermatzea, beharrezkoa den guztietan.
4. Ordu osagarriak, oporrak, gehiegizko lanorduak, baimenak eta abar gainbegiratzea.
5. Zerbitzu operatiboko planak, prozedurak eta protokoloak egitea.
6. Saileko langileek beharrezko ekipamendua eta materiala izan dezaten beharrezko kudeaketak egitea.
7. Ibilgailuak, ekipoak eta uniformeak ikuskatzeaz arduratzea, ezarritako prozeduraren arabera.
8. Polizia-aplikazioko lege- eta erregelamendu-aldaketen berri ematea lehen mailako agenteei.
9. Eman beharreko zerbitzuaren zuzendaritza bere gain hartzea, garrantziagatik edo tamainagatik hala eskatzen duenean.
10. Herritarren eskaerei erantzutea eta izapidetzea.
11. Hiru hilean behin protokolo-bilerak egitea Genero Indarkeriaren Mahaian.
12. Armaren erabilera; armen inguruko tramitazio administratiboa, tiro ikastaroaren kudeaketa beste erakundeekin, armen arau-hausteen kontrola, armen giltza/sarbidearen jarraipena eta kontrola eta behar diren elementuen erosketa.

**BESTE BATZUK:**

13. Galdutako eta/edo lapurtutako bizikleten kontrola eramatea, eta horiei harrera eta irteera kontrolatzeko fitxak egitea.
14. Herritarrei arreta eta informazioa ematea, pertsonalki eta telefonoz, beren eskumeneko gaietan.
15. Hiru hilean behin protokolo-bilerak egitea Genero Indarkeriaren Mahaian.
16. Animalien erregistroa aurrera eramatea eta eguneratua mantentzea.
17. Tolosako enpresen zein komertzio eta denden erregistroa sortzea eta eguneratua mantentzea.
18. Udaltzaingoko ofizial-buruaren eginkizunak betetzea hura ez dagoenean.

**EGINKIZUN KOMUNAK:**

19. Arloa hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.
20. Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.
21. Unitatera/arlora atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.
22. Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edota eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.
23. Arloan dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egokia dela begiratu eta zaintzea.
24. Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, aldez aurretik horretarako jarraibideak jasota.

**Bigarrena.-** Honen ondorioz, lanpostuaren balorazio proposamena onartzea:

| <u><b>Faktorea</b></u> | <u><b>Balorazio<br/>proposamena</b></u> |
|------------------------|-----------------------------------------|
| Espezializazioa        | 150                                     |
| Esperientzia           | 100                                     |
| Agintea                | 100                                     |
| Oihartzuna             | 200                                     |
| A. intelektuala        | 75                                      |
| A Fisikoa              | 0                                       |
| Nekagarritasuna        | 25                                      |
| Arriskugarritasuna     | 25                                      |
| Lanaldia               | 50                                      |
| Dedikazioa             | 150                                     |

Honetaz gain, lanpostu honek urtean 1.685 ordutako lanaldia du.

**Hirugarrena.-** Akordio hau interesatuari jakinaraztea eta udaleko gardentasun atarian argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Miren Yosune Sanz Vidal, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du Udaltzaingoko ofizialorde-lanpostuaren balorazio-berrikuspenaren irizpena.

**3. PUNTUA. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, TRAFIKOKO KOORDINATZAILE-LANPOSTUAREN BALORAZIO-BERRIKUSPENAREN IRIZPENA.**

**PUNTO 3. APROBACIÓN, EN SU CASO, DEL DICTAMEN DE REVISIÓN DE VALORACIÓN DEL PUESTO DE COORDINADOR/A DE TRÁFICO.**

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2025eko ekainaren 18ko irizpena.

**IKUSIRIK**

**Lehena.-** Tolosako udalbatzak 2022ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, lanpostuen katalogoa, balorazioa, sailen organigrama eta Lanpostu zerrenda behin-betiko izaeraz onartu zuen.

**Bigarrena.-** Udalbatzak 2024ko abenduaren 23an lanpostuen balorazioa berrikusteko araudia hasierako izaeraz onartu zuen. Hasierako onarpen hori jendaurrean jarri eta interesdunei entzunaldia eman ondoren, ez ziren erreklamazioak aurkeztu; hortaz, 2025eko martxoaren 27an behin-betiko izaeraz argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari ofizialean.

**Hirugarrena.-** Araudian zortzigarren puntuan adierazten den moduan, urtero udal gobernuak plangintza bat egingo du eta bertan, berrikusiko diren lanpostuen zerrenda eta kronograma bat onartuko du, zehaztuaz berrikusiko diren lanpostuak.

**Laugarrena.-** Tokiko Gobernu batzarrak 2025eko martxoaren 25ean egindako bileran, 2025 urterako plangintza onartu zuen eta ofiziozko berrikuspenaren barnean, ohiko prozeduran, besteen artean, "Trafikoko koordinatzaile" lanpostua erabaki zen.

**Bosgarrena.-** Giza Baliabideetako zinegotzi delegatuak, 2025eko maiatzaren 7ko probidentziaren bidez, lanpostu honen balorazioaren berrikuspen prozedurari hasera ematea erabaki zuen.

**Seigarrena.-** Giza Baliabideetako arduradunak 2025eko maiatzaren 16an egin zuen proposamena eta saileko arduradun eta ordezkari politikoari jakinarazi zen, iradokizunak aurkezteko aukera emanaz.

**Zazpigarrena.-** 2025eko maiatzaren 26an Udaltzaingoko Ofizialak alegazio bat egin du Giza baliabideetako arduradunak egindako proposamenari. Era berean, Giza Baliabideetako arduradunak maiatzaren 30ean proposamen berri horri erantzun dio.

**Zortzigarrena.-** 2025eko ekainaren 11an balorazio berrikuspen batzordean gaia tratatu eta negoziatu da, gaia gehiengoz (Lehendakariaren kalitatezko botoarekin) onartu delarik.

## GAIAREN AZTERKETA ETA PROPOSAMENA

**Lehena.-** 2025eko maiatzaren 16an Giza Baliabideetako arduradunak Trafikoko koordinatzailearen funtzioak zehazteko eskaera luzatu zion eta Ofizialak lanpostu honi dagozkion funtzioak zehaztu zituen, hauexek hain zuzen ere:

### *Ardura Nagusiak:*

Trafikoaren arloko koordinazio-lanak egitea.

### *Funtzioan esanguratsuenak:*

1. Trafikoaren arloan jasotzen diren gorabeherak jaso, horiei erantzun eta bideratzea.
2. Beste sail batzuetarako azalpen-txostenak egitea gai hauei buruz: trafikoa, bide publikoen okupazioa, azokak, jaiak, lanak eta abar.
3. Udalerrian antolatutako jarduera, kirol-proba, jai eta abarretarako behar diren lanak antolatu eta koordinatzea.
4. Bide-seinale horizontalak eta bertikalak, kontrolatzea, eta behar den materiala erosteko eskatzea.
5. Semaforoen matxurak, hausturak edo akatsak kontrolatzea, eta horien berri ematea enpresa adjudikaziodunari, semaforoak ordeztu edo konpon ditzan.
6. Arrisku posibleak gutxitzeko proposamenak egitea, irtenbideak proposatzea, aurrekontuak eskatzea, etab.
7. Mugikortasuneko udal-plangintza diseinatzen laguntzea, informazioa eta iritzia emanez.
8. Mugikortasun Mahaiko kide izatea, mahaia osatzen duten gainerako arlo eta erakundeekin koordinatuta.

### BESTELAKOAK:

9. Galdu eta/edo lapurtutako bizikletak kontrolatzea, eta dagozkien fitxak egitea, haien harrera eta irteera kontrolatze aldera.
10. Herritarrei arreta eta informazioa ematea, zuzenean eta telefonoz, bere eskumeneko arloetan.
11. Garraiobide publikoa erabiltzeko kanpainak abian jartzen laguntzea.
12. Bide-hezkuntzako lantegiak ematen laguntzea.
13. Genero Indarkeriari buruzko mahaian protokolo-bilerak egitea hiru hilean behin.
14. Udaltzaiburuari laguntzea hiriguneko trafikoa antolatzen, seinaleztatzen eta zuzentzen, zirkulazio-arauetan ezarritakoaren arabera.

15. Udaltzainburuari babestea eta Tolosako udalerriari eragiten dioten mugikortasuneko eta hiri barruko eta hiriarteko garraioko ekintzak autonomiaz gainbegiratzea.
16. Udaltzainburuari laguntzea hirigunean egiten diren kirol-proben kudeaketan eta jarraipenean.
17. Udaltzainburuari laguntzea trafiko eta mugikortasun azterketetan eta koordinazioan: 30 gunea, alde zaharra, lurpeko zatia etab.
18. Udaltzainburuari laguntzea herritarren manifestazio eta kontzentrazioengatik trafikoa antolatzen, seinaleztatzen eta zuzentzen.
19. Istripu-txostenak eta atestatuak gainbegiratzea, artxibatu edo bidali aurretik.
20. Garabi-zerbitzua gainbegiratzea, zirkulazioko erregelamendu orokorarekin, gordailu-aginduekin, enbargoarekin eta abarrekin bat etorritik.
21. Bide-hezkuntzako ekintzak, ikastetxe eta ikastetxeen sarrera-irteerak eta kudeaketa gainbegiratzea, bai eta haur-hezkuntza laguntzeko eta sustatzeko "BIZIBUSA" karabana ere.
22. Trafikoko seinaleztapen bertikalaren eta bide-pinturaren eta hiri-materialaren (ispiluak) egoera gainbegiratzea
23. Udalerriari abandonatutako ibilgailuen egoera gainbegiratzea.
24. Udaltzaingoaren udal-gordailuen egoera aztertzea.
25. Bide publikoan eta udal-gordailuaren barruan abandonatutako bizikleta eta patineteak kokatzea.
26. Datu-basea sortzea eta gainbegiratzea, eta Tolosako zikloak eta patineteak erregistratzea (lapurretak gertatuz gero egin beharreko eginbideetarako)
27. Udaltzaingoaren ibilgailuen ikuskapenak burutzea: IAT, aseguruak etab.
28. Behin-behineko aparkalekuen baimenak sortzea eta hauen jarraipena burutzea.
29. Bide publikoko trafiko-guneak ikuskatzea, patruilatzea eta kontrolatzea.

#### FUNTZIO KOMUNAK:

30. Arloa hobetzen laguntzea, hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatuz.
31. Ezarritako helburuak beteko dituela bermatzeko, lana antolatzea.
32. Unitate/arlora atxikita dauden gainerako langileei laguntzea zereginak pilatzen direnean, edo langilerik kanpoan edo gaixorik dagoenean.
33. Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea bere ezagutzak edota eskarmentua direla-eta hobeto menderatzen dituen zereginetan.
34. Arloan dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazio eta mantentze egokia dagoela begiratu eta zaintzea.
35. Bere gaikuntza profesionalari dagokion beste edozein lan egitea, aginduta badu eta aldeztu aurretik horretarako jarraibideak jasota.

**Hirugarrena.-** Honen ondorioz, lanpostuaren balorazio proposamena burutzen da:

| <b><u>Faktorea</u></b> | <b><u>Egungo behin-behineko balorazioa</u></b> | <b><u>Balorazio proposamena</u></b> |
|------------------------|------------------------------------------------|-------------------------------------|
| Espezializazioa        | 150                                            | 150                                 |
| Esperientzia           | 75                                             | 75                                  |
| Agintea                | 50                                             | 50                                  |
| Oihartzuna             | 150                                            | 150                                 |
| A. intelektual         | 50                                             | 50                                  |
| A. Fisikoa             | 25                                             | 25                                  |
| Nekagarritasuna        | 25                                             | 25                                  |
| Arriskugarritasuna     | 25                                             | 25                                  |
| Lanaldia               | 50                                             | 50                                  |
| Dedikazioa             | 150                                            | 150                                 |

Bestalde, berrikuspena egin ahal izateko, ofiziozko ez-ohiko prozedurari dagokionean, haxe da arautegiak xedatzen duen.

### BERRIKUSPEN PROZEDURA

Lanpostuen balorazioaren berrikuspen prozeduraren barnean, ofiziozko ez ohiko berrikuspenak honako prozedura finkatzen du bere 10.2 puntuan:

“

- a) *Giza Baliabideak Azpisailak, zinegotzi delegatuak (edo alkateak, hala badagokio) aginduta, lanpostuaren funtzio/zereginen eta balorazioaren proposamena aurkeztuko du, gehienez hilabete bateko epean, zinegotziaren probidentziaren dataren biharamunetik kontatzen hasita.*
- b) *Proposamena jakinaraziko zaie dagokion saileko arduradunei (politikoari zein teknikoari), iradokizunak aurkez ditzaten hamabost laneguneko epean, proposamena jasotzen duten egunaren biharamunetik kontatzen hasita.*
- c) *Giza Baliabideak Azpisailak aztertuko ditu aurkeztu diren iradokizunak, eta balorazioaren proposamena egingo du, dagokion izapidetzea egin dadin. Horretarako, hamabost laneguneko epea izango du, azken iradokizuna jasotzen duen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.*
- d) *Proposamena langileen ordezkaritzari jakinarazi behar zaio, eta ondoren negoziatu behar da dagokion Balorazio Batzordean. Horretarako, dokumentazioa helaraziko zaio zazpi egun lehenago; dena den, epe hori beste zazpi lanegunez luzatu ahal izango da ordezkari sindikalek horrela eskatuz gero.*
- e) *Proposamenak gastua handitzen badu, kontu-hartzailearen fiskalizazioa beharko du.*
- f) *Balorazio Batzorde Iraunkorrak egindako proposamena Antolakuntza Informazio Batzordeari bidaliko dio, irizpen-proposamen gisa, Giza Baliabideak Azpisailak txostenarekin batera. Ondoren, Udalbatzak dagokion ebazpena emango du.*
- g) *Kasu guztietan, ebazpena interesdunari, saileko arduradunari eta langileen ordezkaritzari jakinaraziko zaie. Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta web orrian argitaratuko da.*
- h) *Lanpostuari dagokion balorazio berria indarrean sartuko da Udalbatzaren ebazpena administrazio-bidean irmoa denetik, eta salbuespenezko eta justifikaturiko moduan, Udalbatzak finkatzen duen unetik.”*

## ORDEZKARITZA SINDIKALAREKIN NEGOZIAZIOA

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 37.1 artikulua b) atalean xedaturikoaren arabera, funtzionarioen berariazko osagarrien zehaztapenak eta aplikazioa pertsonalaren ordezkarekin negoziatu behar dira, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan eta legez dagokion hedaduraz. Zentzu horretan, balorazio berrikuspen hau ordezkari sindikalekin negoziatu da 2025eko ekainaren 11an.

## ONARTZEKO PROZEDURA

- Batetik apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 i) artikulua arabera, Udalbatzak eskuduntza du gai hau onartzeko.
- Bestetik, prozedurari dagokionez, behin udalbatzak onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko web orrian argitaratuko da

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2025eko ekainaren 18an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko bozkak:** Cristina Pelaez Errazquin, Miren Yosune Sanz Vidal, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal eta Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**Lehena.-** “Trafikoko koordinatzailearen” funtzioak onartzea, hauexek hain zuzen ere:

### *Ardura Nagusiak:*

Trafikoaren arloko koordinazio-lanak egitea.

### *Funtzioan esanguratsuenak:*

1. Trafikoaren arloan jasotzen diren gorabeherak jaso, horiei erantzun eta bideratzea.
2. Beste sail batzuetarako azalpen-txostenak egitea gai hauei buruz: trafikoa, bide publikoen okupazioa, azokak, jaiak, lanak eta abar.
3. Udalerrian antolatutako jarduera, kirol-proba, jai eta abarretarako behar diren lanak antolatu eta koordinatzea.
4. Bide-seinale horizontalak eta bertikalak, kontrolatzea, eta behar den materiala erosteko eskatzea.

5. Semaforoen matxurak, hausturak edo akatsak kontrolatzea, eta horien berri ematea enpresa adjudikaziodunari, semaforoak ordeztu edo konpon ditzan.
6. Arrisku posibleak gutxitzeko proposamenak egitea, irtenbideak proposatzea, aurrekontuak eskatzea, etab.
7. Mugikortasuneko udal-plangintza diseinatzen laguntzea, informazioa eta iritzia emanez.
8. Mugikortasun Mahaiko kide izatea, mahaia osatzen duten gainerako arlo eta erakundeekin koordinatuta.

#### BESTELAKOAK:

9. Galdu eta/edo lapurtutako bizikletak kontrolatzea, eta dagozkien fitxak egitea, haien harrera eta irteera kontrolatze aldera.
10. Herritarrei arreta eta informazioa ematea, zuzenean eta telefonoz, bere eskumeneko arloetan.
11. Garraiobide publikoa erabiltzeko kanpainak abian jartzen laguntzea.
12. Bide-hezkuntzako lantegiak ematen laguntzea.
13. Genero Indarkeriari buruzko mahaian protokolo-bilerak egitea hiru hilean behin.
14. Udaltzainburuari laguntzea hiriguneko trafikoa antolatzen, seinaleztatzen eta zuzentzen, zirkulazio-arauetan ezarritakoaren arabera.
15. Udaltzainburuari babestea eta Tolosako udalerriari eragiten dioten mugikortasuneko eta hiri barruko eta hiriarteko garraioko ekintzak autonomiaz gainbegiratzea.
16. Udaltzainburuari laguntzea hirigunean egiten diren kirol-proben kudeaketan eta jarraipenean.
17. Udaltzainburuari laguntzea trafiko eta mugikortasun azterketetan eta koordinazioan: 30 gunea, alde zaharra, lurpeko zatia etab.
18. Udaltzainburuari laguntzea herritarren manifestazio eta kontzentrazioengatik trafikoa antolatzen, seinaleztatzen eta zuzentzen.
19. Istripu-txostenak eta atestatuak gainbegiratzea, artxibatu edo bidali aurretik.
20. Garabi-zerbitzua gainbegiratzea, zirkulazioko erregelamendu orokorrarekin, gordailu-aginduekin, enbargoarekin eta abarrekin bat etorritik.
21. Bide-hezkuntzako ekintzak, ikastetxe eta ikastetxeen sarrera-irteerak eta kudeaketa gainbegiratzea, bai eta haur-hezkuntza laguntzeko eta sustatzeko "BIZIBUSA" karabana ere.
22. Trafikoko seinaleztapen bertikalaren eta bide-pinturaren eta hiri-materialaren (ispiluak) egoera gainbegiratzea
23. Udalerrian abandonatutako ibilgailuen egoera gainbegiratzea.
24. Udaltzaingoaren udal-gordailuen egoera aztertzea.
25. Bide publikoan eta udal-gordailuaren barruan abandonatutako bizikleta eta patineteak kokatzea.
26. Datu-basea sortzea eta gainbegiratzea, eta Tolosako zikloak eta patineteak erregistratzea (lapurretak gertatuz gero egin beharreko eginbideetarako)
27. Udaltzaingoaren ibilgailuen ikuskapenak burutzea: IAT, aseguruak etab.
28. Behin-behineko aparkalekuen baimenak sortzea eta hauen jarraipena burutzea.
29. Bide publikoko trafiko-guneak ikuskatzea, patruilatzea eta kontrolatzea.

#### FUNTZIO KOMUNAK:

30. Arloa hobetzen laguntzea, hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatuz.
31. Ezarritako helburuak beteko dituela bermatzeko, lana antolatzea.
32. Unitate/arlora atxikita dauden gainerako langileei laguntzea zereginak pilatzen direnean, edo langilerik kanpoan edo gaixorik dagoenean.
33. Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea bere ezagutzak edota eskarmentua direla-eta hobeto menderatzen dituen zereginetan.
34. Arloan dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazio eta mantentze egokia dagoela begiratu eta zaintzea.
35. Bere gaikuntza profesionalari dagokion beste edozein lan egitea, aginduta badu eta aldeztu aurretik horretarako jarraibideak jasota.

**Bigarrena.-** Honen ondorioz, lanpostuaren balorazio proposamena onartzea:

| <u>Faktorea</u>    | <u>Balorazio<br/>proposamena</u> |
|--------------------|----------------------------------|
| Espezializazioa    | 150                              |
| Esperientzia       | 75                               |
| Agintea            | 50                               |
| Oihartzuna         | 150                              |
| A. intelektuala    | 50                               |
| A. Fisikoa         | 25                               |
| Nekagarritasuna    | 25                               |
| Arriskugarritasuna | 25                               |
| Lanaldia           | 50                               |
| Dedikazioa         | 150                              |

**Hirugarrena.-** Akordio hau interesatuari jakinaraztea eta udaleko gardentasun atarian argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Miren Yosune Sanz Vidal, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du Trafikoko koordinatzaile-lanpostuaren balorazio-berrikuspenaren irizpena.

**4. PUNTUA. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO,  
UDALTZAIN-LANPOSTUAREN BALORAZIO-  
BERRIKUSPENAREN IRIZPENA.**

**PUNTO 4. APROBAR, EN SU CASO, DEL  
DICTAMEN DE REVISIÓN DE VALORACIÓN  
DEL PUESTO DE POLICÍA MUNICIPAL.**

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2025eko ekainaren 18ko irizpena.

**IKUSIRIK**

**Lehena.**- Tolosako udalbatzak 2022ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, lanpostuen katalogoa, balorazioa, sailen organigrama eta Lanpostu zerrenda behin-betiko izaeraz onartu zuen.

**Bigarrena.**- Udalbatzak 2024ko abenduaren 23an lanpostuen balorazioa berrikusteko araudia hasierako izaeraz onartu zuen. Hasierako onarpen hori jendaurrean jarri eta interesdunei entzunaldia eman ondoren, ez ziren erreklamazioak aurkeztu; hortaz, 2025eko martxoaren 27an behin-betiko izaeraz argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari ofizialean.

**Hirugarrena.**- Araudian zortzigarren puntuan adierazten den moduan, urtero udal gobernua plangintza bat egingo du eta bertan, berrikusiko diren lanpostuen zerrenda eta kronograma bat onartuko du, zehaztuaz berrikusiko diren lanpostuak.

**Laugarrena.**- Tokiko Gobernu batzarrak 2025eko martxoaren 25ean egindako bileran, 2025 urterako plangintza onartu zuen eta ofiziozko berrikuspenaren barnean, ohiko prozeduran, besteen artean, "Udaltzain" lanpostua erabaki zen.

**Bosgarrena.**- Giza Baliabideetako zinegotzi delegatuak, 2025eko maiatzaren 7ko probidentziaren bidez, lanpostu honen balorazioaren berrikuspen prozedurari hasera ematea erabaki zuen.

**Seigarrena.**- Giza Baliabideetako arduradunak 2025eko maiatzaren 16an egin zuen proposamena eta saileko arduradun eta ordezkari politikoari jakinarazi zen, iradokizunak aurkezteko aukera emanaz.

**Zazpigarrena.**- 2025eko ekainaren 11an balorazio berrikuspen batzordean gaia tratatu eta negoziatu da, gaia gehiengoz onartu delarik.

**GAIAREN AZTERKETA ETA PROPOSAMENA**

**Lehena.**- Lanpostu honek honako funtzioak ditu;

Erantzukizun orokorrak:

- Herritarren eta trafikoaren segurtasuna, ordena publikoa eta udal-ordenantzak eta bestelako lege eta arauak bete daitezen zaintzea.

Lan esanguratsuenak:

ZAINTZA ETA BABESA:

1. Prebentzioko zaintza- eta segurtasun-lanak egitea, herrigune eta landaguneetan oinez edo ibilgailuz ibiliz.
2. Gatazka pribatuetan bitartekotza egitea, horretarako eskatuz gero.
3. Ertzaintzarekin elkarlanean aritzea herritarren segurtasun-lanetan.
4. Zaintza-lanak eta pertsonak babesteko eta ordena zaintzeko lanak egitea, pertsona asko biltzen diren ekitaldietan (kirol ekitaldiak, jaiak, etab.).
5. Genero/etxeko indarkeriaren arloko babes-jarduketak egitea.
6. Udalerrian istripurik gertatuz gero, hara joatea, lagundu, babestu edo arazoa konpontzen saiatzeko.
7. Toki-korporazioetako agintariak babestea, eta haien eraikin eta instalazioak babestu edo zaintzea.

POLIZIA ADMINISTRATIBOA:

8. Udalerriko saltokien datu-basea eguneratuta izatea.
9. Establezimendu publikoak (ireki eta ixteko ordutegiak, zaratak eta abar betetzea) eta kalez kaleko salmenta kontrolatzea.
10. Aktak egitea udal-ordenantzen administrazio-urraketekin lotuta.
11. Zarata-neurketak egitea etxe partikularretan eta lokal pribatuetan, baita sonometria-aktak ere.

TRAFIKOA ETA ZIRKULAZIOA:

12. Ikastetxeetan sartu eta haietatik ateratzeko uneak zaindu eta kontrolatzea.
13. Udalerriko zirkulazioa kontrolatu eta antolatzea, zirkulazio-arauetan ezarritakoaren arabera.
14. Aparkalekua kontrolatzea (zamalanak egiteko eremuak, lerro horiak, Udal edo elbarriei erreserbatutako aparkalekuak, etab.), eta, hala badagokio, ibilgailuak ibilgaitzea eta/edo abisua ematea udal-garabiak eramateko.
15. Ikusitako trafikoko arau-hausteak salatzea.
16. Trafikoko istripuetan laguntza ematea: behar diren bitartekoei abisua ematea, eragindako pertsonen laguntzea, lehen sorospenak egitea, eremu perimetrala mugatzea eta zirkulazioa antolatzea.
17. Ibilgailu bereziak (kamioiak, etab.) eskolatzea eta haiei laguntzea herrigunean.
18. Zirkulazio-istripuak direla-eta, eginbideak instruitzea.
19. Istripu-adierazpen adiskidetsuak egiten laguntzea.
20. Alkoholemia-kontrolak eta gai estupefazianteen probak egitea.
21. Bide publikoan hautemandako kalteak jasotzea, bide publikoan herritarren segurtasuna arriskuan jartzen dutenean: oztopoak kentzea (patineteak, bizikletak eta motordun ibilgailuak), izozteak daudenean gatzak banatzea, etab.

POLIZIA ETA EPAITEGIEN ELKARLANA:

22. Atestatuak egitea, kopia bat epaitegira igortzea (ofizioz edo epaitegi interesdunak eskatuta), erregistratzea eta artxibatzea.

BESTE ZEREGIN BATZUK:

23. Zerbitzua ematen ez duten txandetan administrazio eta irratiko agentearen zereginak egitea, horiek ezin badira atzeratu.

EGINKIZUN KOMUNAK:

24. Arloa hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.
25. Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.

26. Unitatera/arlorat atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.
27. Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edota eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.
28. Arloan dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egokia dela begiratu eta zaintzea.
29. Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, aldez aurretik horretarako jarraibideak jasota.

**Bigarrena.-** Lanpostuaren funtzioei dagokionez, udal gobernuak, udaltzaingoa sailak eta Giza Baliabide sailak seinaleztapen funtzioa udaltzainen funtzioen artean egon behar duela argi ikusi du, izan ere seinaleztapen funtzioa udalerrian hainbat ekitaldien antolaketa (kirol lasterketak, kultur emanaldiak, azokak etab..) beharrezkoa den eginkizun bat da.

Ilido honetatik, 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena, bere 55.1 artikuluan, funtzioa hau espreski zehazten du:

*“b) Hiriguneko trafikoa antolatzea, seinaleztatzea eta zuzentzea, zirkulazio-arauetan ezarritakoaren arabera.”*

Bestalde, udaltzainek egingo dituzten seinaleztatze funtzioak momentu konkretu batzuetan izango dira, batipat trafiko laguntzaileak ez dauden kasuetan edo zerbitzuaren beharrak baliabide gehiago eskatzen dituen kasuetan.

**Hirugarrena.-** Lanpostuaren balorazioari dagokionez, seinaleztapen funtzioak gehitzeak ez du ekartzen inongo faktorean eta puntuazioan aldaketarik, izan ere funtzio hau ez du pisuko aldaketarik ekartzen lanpostuen katalogoan eta horregatik, lanpostuen balorazio bere horretan mantentzea proposatzen da.

Bestalde, berrikuspena egin ahal izateko, ofiziozko ohiko prozedurari dagokionean, hauex da arautegiak xedatzen duen

## BERRIKUSPEN PROZEDURA

Lanpostuen balorazioaren berrikuspen prozeduraren barnean, ofiziozko ez ohiko berrikuspenak honako prozedura finkatzen du bere 10.2 puntuan:

“

- a) *Giza Baliabideak Azpisailak, zinegotzi delegatuak (edo alkateak, hala badagokio) aginduta, lanpostuaren funtzio/zereginen eta balorazioaren proposamena aurkeztuko du, gehienez hilabete bateko epean, zinegotziaren probidentziaren dataren biharamunetik kontaktzen hasita.*

- b) *Proposamena jakinaraziko zaie dagokion saileko arduradunei (politikoari zein teknikoari), iradokizunak aurkez ditzaten hamabost laneguneko epean, proposamena jasotzen duten egunaren biharamunetik kontatzen hasita.*
- c) *Giza Baliabideak Azpisailak aztertuko ditu aurkeztu diren iradokizunak, eta balorazioaren proposamena egingo du, dagokion izapidetzea egin dadin. Horretarako, hamabost laneguneko epea izango du, azken iradokizuna jasotzen duen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.*
- d) *Proposamena langileen ordezkaritzari jakinarazi behar zaio, eta ondoren negoziatu behar da dagokion Balorazio Batzordean. Horretarako, dokumentazioa helaraziko zaio zazpi egun lehenago; dena den, epe hori beste zazpi lanegunetz luzatu ahal izango da ordezkari sindikalek horrela eskatuz gero.*
- e) *Proposamenak gastua handitzen badu, kontu-hartzailearen fiskalizazioa beharko du.*
- f) *Balorazio Batzorde Iraunkorrak egindako proposamena Antolakuntza Informazio Batzordeari bidaliko dio, irizpen-proposamen gisa, Giza Baliabideak Azpisailak txostenarekin batera. Ondoren, Udalbatzak dagokion ebazpena emango du.*
- g) *Kasu guztietan, ebazpena interesdunari, saileko arduradunari eta langileen ordezkaritzari jakinaraziko zaie. Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta web orrian argitaratuko da.*
- h) *Lanpostuari dagokion balorazio berria indarrean sartuko da Udalbatzaren ebazpena administrazio-bidean irmoa denetik, eta salbuespenezko eta justifikaturiko moduan, Udalbatzak finkatzen duen unetik.”*

## **ORDEZKARITZA SINDIKALAREKIN NEGOZIAZIOA**

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 37.1 artikulua b) atalean xedaturikoaren arabera, funtzionarioen berariazko osagarrien zehaztapenak eta aplikazioa pertsonalaren ordezkariarekin negoziatu behar dira, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan eta legez dagokion hedaduraz. Zentzu horretan, balorazio berrikuspen hau ordezkari sindikalekin negoziatu da 2025eko ekainaren 11an.

## **ONARTZEKO PROZEDURA**

- Batetik apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 i) artikulua arabera, Udalbatzak eskuduntza du gai hau onartzeko.

- Bestetik, prozedurari dagokionez, behin udalbatzak onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko web orrian argitaratuko da

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2025eko ekainaren 18an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko bozkak:** Cristina Pelaez Errazquin, Miren Yosune Sanz Vidal, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal eta Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**Lehena.-** "Udaltzain" lanpostuari (4.105, 4.106, 4.107, 4.108, 4.109 eta 4.113 kodea dutenak) honako funtzioak onartzea, hauexek hain zuzen ere:

### Erantzukizun orokorrak:

- Herritarren eta trafikoaren segurtasuna, ordena publikoa eta udal-ordenantzak eta bestelako lege eta arauak bete daitezen zaintzea.

### Lan esanguratsuenak:

#### ZAINTZA ETA BABESA:

1. Prebentzioko zaintza- eta segurtasun-lanak egitea, herrigune eta landaguneetan oinez edo ibilgailuz ibiliz.
2. Gatazka pribatuetan bitartekotza egitea, horretarako eskatuz gero.
3. Ertzaintzarekin elkarlanean aritzea herritarren segurtasun-lanetan.
4. Zaintza-lanak eta pertsonak babesteko eta ordena zaintzeko lanak egitea, pertsona asko biltzen diren ekitaldietan (kirol ekitaldiak, jaiak, etab.).
5. Genero/etxeko indarkeriaren arloko babes-jarduketak egitea.
6. Udalerrian istripurik gertatuz gero, hara joatea, lagundu, babestu edo arazoa konpontzen saiatzeko.
7. Toki-korporazioetako agintariak babestea, eta haien eraikin eta instalazioak babestu edo zaintzea.

#### POLIZIA ADMINISTRATIBOA:

8. Udalerriko saltokien datu-basea eguneratuta izatea.
9. Establezimendu publikoak (ireki eta ixteko ordutegiak, zaratak eta abar betetzea) eta kalez kaleko salmenta kontrolatzea.
10. Aktak egitea udal-ordenantzen administrazio-urraketekin lotuta.
11. Zarata-neurketak egitea etxe partikularretan eta lokal pribatuetan, baita sonometria-aktak ere.

#### TRAFIKOA ETA ZIRKULAZIOA:

12. Ikastetxeetan sartu eta haietatik ateratzeko uneak zaindu eta kontrolatzea.
13. Udalerriko zirkulazioa kontrolatu eta antolatzea, zirkulazio-arauetan ezarritakoaren arabera.
14. Aparkalekua kontrolatzea (zamalanak egiteko eremuak, lerro horiak, Udala edo elbarriei erreserbatutako aparkalekuak, etab.), eta, hala badagokio, ibilgailua ibilgetzea eta/edo abisua ematea udal-garabiak eramateko.

15. Ikusitako trafikoko arau-hausteak salatzea.
16. Trafikoko istripuetan laguntza ematea: behar diren bitartekoei abisua ematea, eragindako pertsonen laguntzea, lehen sorospenak egitea, eremu perimetrala mugatzea eta zirkulazioa antolatzea.
17. Ibilgailu bereziak (kamioiak, etab.) eskoltatzea eta haiei laguntzea herrigunean.
18. Zirkulazio-istripuak direla-eta, eginbideak instruitzea.
19. Istripu-adierazpen adiskidetsuak egiten laguntzea.
20. Alkoholemia-kontrolak eta gai estupefazianteen probak egitea.
21. Bide publikoan hautemandako kalteak jasotzea, bide publikoan herritarren segurtasuna arriskuan jartzen dutenean: oztupoak kentzea (patineteak, bizikletak eta motordun ibilgailuak), izozteak daudenean gatza banatzea, etab.
22. Hiriguneko trafikoa antolatzea, seinaleztatzea eta zuzentzea, zirkulazio-arauetan ezarritakoaren arabera.

#### POLIZIA ETA EPAITEGIEN ELKARLANA:

23. Atestatuak egitea, kopia bat epaitegira igortzea (ofizioz edo epaitegi interesdunak eskatuta), erregistratzea eta artxibatzea.

#### BESTE ZEREGIN BATZUK:

24. Zerbitzua ematen ez duten txandetan administrazio eta irratiko agentearen zereginak egitea, horiek ezin badira atzeratu.

#### EGINKIZUN KOMUNAK:

25. Arloa hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.
26. Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.
27. Unitatera/arlora atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.
28. Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edota eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.
29. Arloan dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egokia dela begiratu eta zaintzea.
30. Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, aldez aurretik horretarako jarraibideak jasota.

**Bigarrena.-** Akordio hau interesatuari jakinaraztea eta udaleko gardentasun atarian argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Miren Yosune Sanz Vidal, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du Udaltzain-lanpostuaren balorazio-berrikuspenaren irizpena.

**5. PUNTUA. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, IRIZPEN HAU: EUSKO JAURLARITZAKO LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILARI ESKAERA EGITEA TOLOSAKO UDALERRIA BIZITEGI-MERKATU TENKATUKO EREMU IZENDATZEKO.**

**PUNTO 5. APROBAR, EN SU CASO, DEL DICTAMEN PARA SOLICITAR AL DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES DEL GOBIERNO VASCO LA DECLARACIÓN DEL MUNICIPIO DE TOLOSA COMO ZONA DE MERCADO RESIDENCIAL TENSIONADO.**

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2025eko ekainaren 18ko irizpena.

**AURREKARIAK**

2023ko maiatzaren 24an, Etxebizitza Eskubidearen aldeko 12/2023 Legea onartu zen (2023ko maiatzaren 25eko BOE, 124. zk.).

Espainiako Konstituzioak, 47. artikuluan, etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea aitortzen du, eta botere publikoei ezartzen die konstituzio-eskubideak baliatzean eta konstituzio-eginbeharrak betetzean berdintasuna bermatzeko beharrezkoak diren baldintzak sustatu behar dituztela eta eskubide hori gauzatzeko arau egokiak ezarri behar dituztela.

Etxebizitza funtsezko ondasuna da, eta, batez ere, gizarte-ongizatearen zutabe nagusia da, bizitza pribatua eta familia-bizitza garatzeko lekua eta hiri-politika guztien erdigunea den aldetik.

Baina, beste ikuspuntu batetik, etxebizitza sektore ekonomikoan esku hartzen duen ondasuna da, bai produzitzeko unean (eraikuntza), bai merkaturatzeko eta kudeatzeko unean (salmenta/alokairua).

**ANTECEDENTES:**

Con fecha 24 de mayo de 2023 se aprobó la Ley 12/2023, por el derecho a la vivienda (BOE nº 124, de 25 de mayo de 2023)

La Constitución española reconoce, en su artículo 47, el derecho al disfrute de una vivienda digna y adecuada e impone a los poderes públicos el deber de promover las condiciones necesarias que garanticen la igualdad en el ejercicio de los derechos y el cumplimiento de los deberes constitucionales y de establecer las normas pertinentes para hacer efectivo el referido derecho.

La vivienda resulta ser un bien esencial que constituye, ante todo, un pilar central del bienestar social en cuanto lugar de desarrollo de la vida privada y familiar, y centro de todas las políticas urbanas.

Pero también, desde otro punto de vista, la vivienda es un bien que interviene en el sector económico, tanto en el momento de su producción (construcción), como en el de la puesta en el mercado y gestión (venta/alquiler).

Horregatik, 12/2023 Legeak, besteak beste, etxebizitza-politikaren alderdirik funtsezkoenen erregulazio homogeneoa ezartzen du, etxebizitza eskuratzeko eskubidea betetzeari eragiten diotenak, bai eta beste eskubide konstituzional batzuei ere, baita jarduera ekonomikoari berari ere.

Horrela, 12/2023 Legearen helburuetako bat da merkatu-baldintzetan etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonai etxebizitza duin eta egoki bat eskuratzeko aukera ematea, arreta berezia eskainiz gazteei eta kolektibo kalteberei, eta arrazoizko prezioa eskaintza baten alde eginez.

Horretarako, beste neurri batzuen artean, aukera ematen die etxebizitzaren arloan eskumena duten administrazioei **bizitegi-merkatu tenkatuko eremuak deklaratzeko**, beren araudi erregulatzailan ezarritako irizpide eta prozeduren arabera eta beren eskumenen esparruan, herritarrek etxebizitza-eskaintza eskasa izateko arrisku berezia duten lurralde-eremuetan etxebizitzaren arloko ekintza publikoak bideratzeko, merkaturan sartzeko eskuragarri egiten duten baldintzetan.

lido horretan, 12/2023 Legeak, etxebizitzarako eskubidearen aldekoak, adierazten du eremu tenkatua deklaratzeko bi irizpide hauetako bat bete behar dela:

a) Aurrekontu pertsonalean edo bizikidetzak unitatean hipotekaren edo alokairuaren batez besteko kargak, gehi oinarritzko gastuek eta hornidurek, familien batez besteko diru-sarreraren edo batez besteko errentaren ehuneko hogeita hamar gainditzea.

Por ello, la Ley 12/2023 viene a establecer, entre otras, una regulación homogénea de los aspectos más esenciales de la política de vivienda, que afectan a la satisfacción del derecho de acceso a la vivienda, así como a otros derechos constitucionales, incluso a la propia actividad económica.

De esta forma, uno de los objetivos de la Ley 12/2023 es el de facilitar el acceso a una vivienda digna y adecuada a las personas que tienen dificultades para acceder a una vivienda en condiciones de mercado, prestando especial atención a jóvenes y colectivos vulnerables, y favoreciendo la existencia de una oferta a precios asequibles.

Entre otras medidas, para ello, ofrece la posibilidad de que las Administraciones competentes en materia de vivienda puedan declarar, de acuerdo con los criterios y procedimientos establecidos en su normativa reguladora y en el ámbito de sus respectivas competencias, **zonas de mercado residencial tensionado** a los efectos de orientar las acciones públicas en materia de vivienda en aquellos ámbitos territoriales en los que exista un especial riesgo de oferta insuficiente de vivienda para la población, en condiciones que la hagan asequible para su acceso en el mercado.

En este sentido, la Ley 12/2023, por el derecho a la vivienda, indica que para declarar la zona tensionada se debe cumplir uno de estos dos criterios:

a) Que la carga media del coste de la hipoteca o el alquiler en el presupuesto personal o de la unidad de convivencia, más los gastos y suministros básicos, supere el treinta por ciento de los ingresos medios o de la renta media de los hogares.

b) Etxebizitza erosteko edo alokatzeko prezioak, bizitegi-merkatu tenkatuko eremu deklaratu aurreko bost urteetan, dagokion autonomia-erkidegoko kontsumo-prezioen indizearen hazkunde metatuaren ehunekoa baino gutxienez ehuneko bi puntu handiagoa izatea.

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak 2024ko otsailean EAEko eremu tenkatuei buruz aurkeztutako txostenak Tolosa barne hartzen du osorik tenkatutzat jo daitezkeen udalerrien zerrendan.

Tolosako bizitegi-merkatuaren egoeraren diagnostikoa egin ondoren, agerian geratu da arrisku berezia dagoela udalerrian bizi diren biztanleek etxebizitza nahikoa ez eskaintzeko, arrazoizko prezioetan, bai eta etxe berriak sortzeko ere.

Izan ere, egindako diagnostikotik ondorioztatzen da Tolosako udalerriak, osorik, betetzen duela Etxebizitzarako Eskubideari buruzko maiatzaren 24ko 12/2023 Legearen 18.3 artikuluan jasotako b irizpidea: «Etxebizitzaren erosketa- edo alokairu-prezioak gutxienez ehuneko hiru puntu handiagoa izan du etxebizitza-merkatu tenkatuko eremu deklaratu aurreko bost urteetan kontsumo-prezioen indizearen hazkunde metatuaren ehunekoa baino». Tolosaren kasuan, informazio estatistikoa dagoen azken 5 urteetan alokairuaren prezioa % 20 igo da; horrek esan nahi du irizpide horretarako erreferentziatzeko % 19,6 gainditzen duela (% 16,6 EAEko Zerga + % 3).

b) Que el precio de compra o alquiler de la vivienda haya experimentado en los cinco años anteriores a la declaración como área de mercado de vivienda tensionado, un porcentaje de crecimiento acumulado al menos tres puntos porcentuales superior al porcentaje de crecimiento acumulado del índice de precios de consumo de la comunidad autónoma correspondiente.

El informe sobre zonas tensionadas en Euskadi presentado, en febrero de 2024, por el Observatorio Vasco de Vivienda, incluye Tolosa en la relación de municipios que podrían ser potencialmente declarados como tensionados en su integridad.

Efectuado el diagnóstico de la situación del mercado residencial en el municipio de Tolosa, se ha puesto en evidencia la existencia de un especial riesgo de oferta insuficiente de vivienda a precios asequibles para la población residente en el municipio y la posible formación de nuevos hogares.

De hecho, del diagnóstico realizado se desprende que el municipio de Tolosa, en su integridad, cumple con el criterio b recogido en el artículo 18.3 de la Ley 12/2023, de 24 de mayo, por el derecho a la vivienda: "El precio de compra o alquiler de la vivienda haya experimentado en los cinco años anteriores a la declaración como área de mercado de vivienda tensionado, un porcentaje de crecimiento acumulado al menos tres puntos porcentuales superior al porcentaje de crecimiento acumulado del índice de precios de consumo". En el caso de Tolosa, el precio del alquiler en los últimos 5 años en los que se dispone de información estadística ha aumentado un 20% lo que significa que supera el 19,6% (16,6% IPV +3%) de referencia para este criterio.

Aipatutako diagnostikoaz gain, Etxebizitza Plan bat egin da. Plan horren xedea da herritarrei etxebizitza duina, egokia eta eskuragarria bermatzea, batez ere premia handiena duten kolektiboei. Horretarako, lehentasuna eman zaio egungo bizitegi-parkeari, hutsik dauden etxebizitzak mobilizatu dira, alokairu eskuragarria sustatu da lehentasunezko formula gisa, eta birgaitze-jarduketak sustatu dira, eskuragarri dagoen eskaintza handitzeko eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.

Era berean, Tolosa bizitegi-merkatu tenkatuko eremu izendatzeko justifikazio-memoria egin da, zeinak modu ordenatuan azaltzen baititu diagnostikoan aztertutako elementu eta adierazle guztiak, Etxebizitza Planean jasotako neurri publikoak eta horiei buruzko kronograma.

Lurralde-eremu bat bizitegi-merkatu tenkatuko eremu izendatzearen indarraldia hiru urtekoa izango da. Hori dela eta, Tolosako Udalak plan bat egin du, datozen hiru urteetan ezarri beharreko neurri espezifikoekin.

Etxebizitza-plan honen helburua da arrazoizko prezioan alokairuko etxebizitzaren parkea handitzea, gazteen eta bizitegi-kalteberatasuna duten kolektiboen emantzipazioa errazteko, eskariari diru-sarreraren % 30etik beherako finantza-ahaleginarekin erantzun ahal izateko.

Etxebizitza Planak 4 ardatz estrategiko ditu, 9 estrategia eta 20 ekintza barne.

Además del Diagnóstico referido, se ha elaborado un Plan de Vivienda cuya misión es garantizar el acceso a una vivienda digna, adecuada y asequible a la población, principalmente a los colectivos más necesitados, actuando de forma prioritaria sobre el parque residencial existente, movilizandoviviendas vacías, impulsando el alquiler asequible como fórmula preferente y fomentando actuaciones de rehabilitación que permitan ampliar la oferta disponible y mejorar la calidad de vida de las personas.

Asimismo, se ha elaborado la memoria justificativa para la declaración de Tolosa como zona de mercado residencial tensionado que, de manera ordenada, expone el conjunto de los elementos e indicadores analizados en el Diagnóstico y las medidas públicas contenidas en el Plan de Vivienda y cronograma relativo a éstas.

La vigencia de la declaración de un ámbito territorial como zona de mercado residencial tensionado será de tres años, por ello el Ayuntamiento de Tolosa ha elaborado un Plan con medidas específicas a implementar en los próximos tres años.

El objetivo de este Plan de vivienda es incrementar el parque de vivienda de alquiler a precios asequibles que facilite la emancipación de la población joven y de los colectivos con vulnerabilidad habitacional, de modo que sea posible atender a la demanda con un esfuerzo financiero inferior al 30% de sus ingresos.

El Plan de Vivienda se estructura en 4 Ejes Estratégicos que incluyen 9 estrategias y 20 acciones.

Hauek dira funtsezko ardatzak:

1. Alokairu eskuragarria sustatzea.
2. Lehendik dauden eraikinen parkearen gaineko jarduketak.
3. Alokairurako prestazioen eta laguntzen sistema.
4. Gobernantza eta koordinazio instituzionaleko sistemak.

Neurri horiek guztiak Etxebizitza Planaren dokumentuan sartu dira. Dokumentu hori Tolosa bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu izendatzeko eskaerarekin batera doa, eta onartzeko aurkezten da.

Los ejes fundamentales serían:

1. Fomento del alquiler asequible.
2. Actuaciones sobre el parque de edificios existentes.
3. Sistema de prestaciones y ayudas al alquiler
4. Sistemas de gobernanza y coordinación institucional.

Todas estas medidas han sido incorporadas al documento de Plan de Vivienda que se acompaña a la solicitud de declaración de Tolosa como zona de mercado residencial tensionada, que se presenta a aprobación.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

12/2023 Legea, maiatzaren 24koa, Etxebizitza Eskubidearen aldekoa.

29/1994 Legea, azaroaren 29koa, Hiri Errentamenduei buruzkoa.

3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartzen duena.

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.

2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak bizitegi-merkatu tenkatuko eremuen izendapena arautzen duen Estatuko Etxebizitza Legean aurreikusitakoa Euskal Autonomia Erkidegoan betetzeko protokoloa.

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

Ley 12/2023, de 24 de mayo, por el derecho a la vivienda.

Ley 29/1994, de 29 de noviembre, de Arrendamientos Urbanos.

Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, por la que se aprueba el Estatuto de Autonomía del País Vasco.

Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las bases de Régimen Local.

Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

Ley 3/2015, de 18 de junio, de vivienda del País Vasco.

Protocolo para dar cumplimiento en la Comunidad Autónoma del País Vasco a lo previsto en la Ley estatal de Vivienda, que regula la declaración de las zonas de mercado residencial tensionado, del Observatorio Vasco de la Vivienda.

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrek, 2025eko ekainaren 18an egindako ohiko bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko bozkak: Cristina Pelaez Errazquin, Miren Yosune Sanz Vidal, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

### IRIZPENA

BAKARRA: Onartzea Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari eskaera egitea Tolosako udalerria bizitegi-merkatu tenkatuko eremu izenda dezan. Izendapen horrek, gutxienez, honako erabaki hauek jasoko ditu:

Lehenengoa.- Tolosako udalerria, osorik, bizitegi-merkatu tenkatuko eremu izendatzea.

Bigarrena.- Etxebizitza Eskubidearen aldeko maiatzaren 24ko 12/2023 Legeak bizitegi-merkatu tenkatuko eremu izendatutako eremuetan aplikatu beharreko neurri eta administrazio-ahalmen guztiak esleitzea Tolosari.

Hirugarrena.- Prezioen mugak aplikatzea, erreferentziako prezioen indizeen sistemaren arabera, baita azken bost urteetan errentamendu-kontraturik indarrean izan ez duten higieziei ere.

La Comisión Informativa Permanente del Ámbito de Trabajo de Organización del Ayuntamiento de Tolosa, en sesión ordinaria celebrada el 18 de junio de 2025, analizó y votó la siguiente propuesta de dictamen. El resultado de la votación fue el siguiente:

Votos a favor: Cristina Pelaez Errazquin, Miren Yosune Sanz Vidal, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa y Jose Maria Villanueva Telleria.

Por lo tanto, se propone, por unanimidad, al Pleno de la Corporación Municipal aprobar este dictamen:

### DICTAMEN

UNICO: Solicitar al Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes del Gobierno Vasco la declaración del municipio de Tolosa como zona de mercado residencial tensionado, comprensiva de al menos los siguientes pronunciamientos:

Primero.- La declaración del municipio de Tolosa, en su totalidad, como zona de mercado residencial tensionado.

Segundo.- La asignación para Tolosa del conjunto de medidas y facultades administrativas que la Ley 12/2023, de 24 de mayo, por el derecho a la vivienda, prevé aplicables en las zonas declaradas como de mercado residencial tensionado.

Tercero.- La aplicación de las limitaciones de precios conforme al sistema de índices de precios de referencia, también a los inmuebles en los que no hubiese estado vigente ningún contrato de arrendamiento en los últimos cinco años.

Laugarrena.- Maiatzaren 24ko 12/2023 Legearen 3.k) artikuluan xedatutakoaren arabera, edukitzaile handitzat hartuko da bizitegi-erabilerako bost hiri-higiezin edo gehiagoren titularra den pertsona fisikoa edo juridikoa, edo bizitegi-erabilerako 1.500 m2-tik gorako azalera eraikia duena, trastelekuak eta garajeak izan ezik.

Bosgarrena.- Adierazpenean agertutako desorekak zuzentzeko proposatutako neurrien plan espezifiko eta hura garatzeko egutegia onartzea, administrazio eskudunek hasierako hiru urteko epean behar bezala gauzatzeko hartutako konpromisoak zehaztuta.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Miren Yosune Sanz Vidal, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailari eskaera egitea Tolosako udalerria bizitegi-merkatu tenkatuko eremu izendatzeko irizpena.

Cuarto.- La consideración de gran tenedor, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 3.k) de la Ley 12/2023, de 24 de mayo, a la persona física o jurídica que sea titular de cinco o más inmuebles urbanos de uso residencial o una superficie construida de más de 1.500 m2 de uso residencial, excluyendo en todo caso trasteros y garajes.

Quinta.- La aprobación del Plan específico de medidas propuesto para la corrección de los desequilibrios evidenciados en la declaración y su calendario de desarrollo, con la determinación de sus compromisos asumidos por las administraciones competentes para su correcta ejecución en un periodo inicial de tres años.

El resultado de la votación de la Corporación ha sido el siguiente:

**Votos a favor:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Miren Yosune Sanz Vidal, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Por lo tanto, el Pleno, por unanimidad, ha aprobado el dictamen para solicitar al departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes del Gobierno Vasco la declaración del municipio de Tolosa como zona de mercado residencial tensionado.

**6. PUNTUA. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO,  
TOLOSAKO IRISGARITASUN  
UNIBERTSALAREN PLAN INTEGRALAREN  
IRIZPENA.**

**PUNTO 6. APROBAR, EN SU CASO, DEL  
DICTAMEN DEL PLAN INTEGRAL DE  
ACCESIBILIDAD UNIVERSAL DE TOLOSA.**

Lurraldea Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2025eko ekainaren 18ko irizpena.

**IKUSIRIK**

LEHENA.- 2023ko uztailaren 19ko Alkatearen Ebazpen bidez onartu ziren Tolosako irisgarritasun plana idazteko zerbitzua kontratatzeko espedienteak, gastua eta Administrazio Baldintza Partikularren Agiria eta Baldintza Teknikoen Agiria.

Kontratua Ingartek Consulting SL enpresari esleitu zitzaion, 2023ko urriaren 10eko Alkatearen 2272 Dekretuaren bidez.

2024ko urtariletik ekainera bitartean, plan-idazketan hiru parte-hartze saio egin ziren (prozesuaren aurkezpena, diagnostikoaren aurkezpena eta emaitzen aurkezpena).

2025eko apirilaren 29an, Irisgarritasun Planaren azken bertsioa bidali zuten.

BIGARRENA.- 2025eko ekainaren 4an, hirigintzako teknikariak dagokion txosten teknikoa egin duela, eta ondorengoa adierazi:

**«2. AZTERKETA TEKNIKOAK**

**2.1. JUSTIFIKAZIOA ETA HELBURUAK**

20/1997 Legeak, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna sustatzeari buruzkoa, dio EAEko udalek udal-irisgarritasuneko plan bat eduki behar dutela nahitaez. Irisgarritasun-planak lau urtero eguneratua izan behar du. 2003koa onartu zenetik ez da eguneraketarik egin, eta hortik ondorioztatzen da Udalak ez duela indarrean dagoen planik.

Irisgarritasun legeak ezarritakoa bete ahal izateko irisgarritasun plana eguneratzea beharrezkoa da. Ondorioz, eskumen propio bat betearazteko eta irisgarritasun legea ezartzen duena betetzeko irisgarritasun planaren idazketa kontratatu zen.

Irisgarritasun Planak pertsona guztiek –bereziki mugikortasun murriztua edo desgaitasunen bat dutenek– aukera berdintasunean eskubideak baliatzeko beharra du oinarri.

Planaren helburu nagusiak hauek dira:

- Hiri-espazioan eta udal eraikinetan dauden oztopo fisiko eta sentsorialak identifikatzea.
- Bide irisgarriak, seinaleztapena, garraio publikoa eta hiri-altzariak hobetzeko neurriak proposatzea.
- Jarduketa-egutegi lehentasuna ezartzea.
- Irisgarritasun unibertsala udal-politika guztietan zehar-lerro gisa txertatzea.

Horretarako, Plana indarrean dagoen irisgarritasun unibertsalari buruzko legeria kontuan hartuta prestatu da, eta hiri-antolamenduari, eraikuntzari eta mugikortasunari buruzko araudi teknikoak jarraituz garatu da.

## 2.2. PLANAREN EREMUAK

Planak honako 4 arlo hartzen ditu barne:

- Hiri-inguruneak: Kaleak eta hiri-espazio publikoak.
- Eraikin publikoak: Udal titulartasuneko eraikin eta ekipamenduak.
- Garraioa: Garraio publikoaren geltokiak eta pribatuaren aparkalekuak.
- Informazioa eta komunikazioa: Hiri-seinaleztapena eta komunikazio-sistemak.

## 2.3. PLANAREN DOKUMENTUAK

Tolosako irisgarritasun unibertsaleko plan integralak 4 dokumentu osatzen ditu:

1. Jarduera esparrua, proposamen estrategikoa eta irismena
2. Egungo egoeraren diagnostikoa eta jarduera-proposamenen definizioa.
3. Jarduera-plana
4. Kudeaketa-plana

Honez gain, proiektua GIS formatuan, kudeaketa plana .xlsx-n, eta planoak .dwg-n jaso dira.

LEHENA.- 2023ko uztailaren 19ko Alkatearen Ebazpen bidez onartu ziren Tolosako irisgarritasun plana idazteko zerbitzua kontratatzeko espedienteak, gastua eta Administrazio Baldintza Partikularren Agiria eta Baldintza Teknikoen Agiria.

Kontratua Ingartek Consulting SL enpresari esleitu zitzaion, 2023ko urriaren 10eko Alkatearen 2272 Dekretuaren bidez.

2024ko urtarriletik ekainera bitartean, plan-idazketan hiru parte-hartze saio egin ziren (prozesuaren aurkezpena, diagnostikoaren aurkezpena eta emaitzen aurkezpena).

2025eko apirilaren 29an, Irisgarritasun Planaren azken bertsioa bidali zuten.

BIGARRENA.- 2025eko ekainaren 4an, hirigintzako teknikariak dagokion txosten teknikoa egin duela, eta ondorengo adierazi:

## «2. AZTERKETA TEKNIKOA

### 2.1. JUSTIFIKAZIOA ETA HELBURUAK

20/1997 Legeak, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna sustatzeari buruzkoa, dio EAEko udalek udal-irisgarritasuneko plan bat eduki behar dutela nahitaez. Irisgarritasun-planak lau urtero eguneratua izan behar du. 2003koa onartu zenetik ez da eguneraketarik egin, eta hortik ondorioztatzen da Udalak ez duela indarrean dagoen planik.

Irisgarritasun legeak ezarritakoa bete ahal izateko irisgarritasun plana eguneratzea beharrezkoa da. Ondorioz, eskumen propio bat betearazteko eta irisgarritasun legea ezartzen duena betetzeko irisgarritasun planaren idazketa kontratatu zen.

Irisgarritasun Planak pertsona guztiek –bereziki mugikortasun murriztua edo desgaitasunen bat dutenek– aukera berdintasunean eskubideak baliatzeko beharra du oinarri.

Planaren helburu nagusiak hauek dira:

- Hiri-espazioan eta udal eraikinetan dauden oztopo fisiko eta sentsorialak identifikatzea.
- Bide irisgarriak, seinaleztapena, garraio publikoa eta hiri-altzariak hobetzeko neurriak proposatzea.
- Jarduketa-egutegi lehentasuna ezartzea.
- Irisgarritasun unibertsala udal-politika guztietan zehar-lerro gisa txertatzea.

Horretarako, Plana indarrean dagoen irisgarritasun unibertsalari buruzko legeria kontuan hartuta prestatu da, eta hiri-antolamenduari, eraikuntzari eta mugikortasunari buruzko araudi teknikoak jarraituz garatu da.

### 2.2. PLANAREN EREMUAK

Planak honako 4 arlo hartzen ditu barne:

- Hiri-inguruneak: Kaleak eta hiri-espazio publikoak.
- Eraikin publikoak: Udal titulartasuneko eraikin eta ekipamenduak.
- Garraioa: Garraio publikoaren geltokiak eta pribatuaren aparkalekuak.
- Informazioa eta komunikazioa: Hiri-seinaleztapena eta komunikazio-sistemak.

### 2.3. PLANAREN DOKUMENTUAK

Tolosako irisgarritasun unibertsaleko plan integralak 4 dokumentu osatzen ditu:

5. Jarduera esparrua, proposamen estrategikoa eta irismena
6. Egungo egoeraren diagnostikoa eta jarduera-proposamenen definizioa.
7. Jarduera-plana
8. Kudeaketa-plana

Honez gain, proiektua GIS formatuan, kudeaketa plana .xlsx-n, eta planoak .dwg-n jaso dira.

### 2.4. EMAITZA NAGUSIAK

Irisgarritasun Planaren ondorio nagusien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- 57 ibilbide identifikatu dira: 17 nagusi, 11 bigarren mailako eta 29 osagarri, 664 tarteetan banatuta eta oinezkoentzako ibilbideek 48.077,71 metro biltzen dituzte guztira. Oinezkoentzako bideen %86,08 irisgarriak dira. Oinezko pasabideen %97,26 ez dira irisgarriak. Kaleetan 6.241 jarduketa aurreikusi dira.
- Aztertutako Udal 44 eraikinetatik 41etan jarduketak aurreikusi dira.
- Ez dago autobus geraleku irisgarriarik. Aparkalekuen dimentsioei dagokienez, dauden plazen %60 inguruk ez ditu neurri egokiak. Mugikortasun urriko pertsonentzako (MUP) 86 aparkalekutik 13 dira irisgarriak.
- Eskaileren, arrapalen, mailen, baranden eta igogailuen %85,93 ez dira irisgarriak.

Planak jarduketen plangintza 12 urterako egin du, hiru laurtekotan banatuta, eta bide publikoei, eremu libreei eta eraikin publikoei esleitutako lehentasunaren arabera zehaztu dira fase bakoitzeko ekintzak. Ordena bat ezartzeko, hierarkia-irizpideak erabili dira: Lehenik eta behin, ibilbide nagusiak eta bigarren mailako ibilbideak, gehien erabiltzen diren eremu libreak eta adinagatik edo egoeragatik mugikortasun-arazoak izan ditzaketen biztanleria-sektore gehienak biltzen diren eraikinak (adinekoak eta haurrak). Ondoren, ibilbide eta eraikin osagarrietan jarduketak egitea planteatu da, baita jarduketak behar dituzten gainerako eremu libreetan ere.

Ekintza guztien aurrekontu estimatua 28.214.598,07 €-koa da. Ekintza bakoitza bere proiektua beharko du, aurrekontu zehatza kalkulatzeko. Eragin ekonomikoa une horretan aztertu beharko da. Bestetik, kontuan hartu behar da planteatzen diren ekintza gehienak kaleen eta eraikinen eraberritzeekin edo konponketekin batera gauzatuko direla eta aurrekontu horien baitan txertatuko direla irisgarritasuna hobetzeko ekintzak.

## 2.5. TRAMITAZIOA

20/1997 Legeak udalerrriak irisgarritasun egitarauak prestatu eta gauzatzeko betebeharra ezartzen du, nahiz eta prozedura zehatzik ez duen arautzen.

Bestalde, 39/2015 Legearen (Administrazio Prozedura Erkidearena) 129. artikulua ezartzen duenez, planifikazio tresnek interes orokorreko irizpideetan oinarritu behar dute, eta tramitazio arrazionala eta gardena bermatu behar dute.

Hori kontuan hartuta, Irisgarritasun Plana udalaren planifikazio tresna gisa hartzen da, eta horren onarpena Udalbatzari dagokio, 7/1985 Legearen 22. artikulua arabera. Tramitazioa plan estrategiko edo programa publiko baten parekoa da, eta bere izapide eta onarpena administrazio prozeduraren arauekin bat etorri behar da>>.

## **KONTUAN HARTURIK**

Kontuan izanik aurrekariak, aplikatu beharreko lege-xedapenak eta udal teknikariak egindako aldeko txosten teknikoak, honako irizpen-proposamena egiten zaio Lurralde Batzorde Informatiboari:

## **IRIZPEN-PROPOSAMENA**

**LEHENA.- HASIERAKO ONESPENA EMATEA** 2025eko apirilaren 29an Ingartek Consulting SLk aurkeztutako Tolosako Irisgarritasun Unibertsalaren Plan Integralari.

**BIGARRENA.-** Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko Web orrian ([www.tolosa.eus](http://www.tolosa.eus)), eta iragarki taulan argitaratzea. Eta, era berean, adierazitako plana jendaurrean jartzea 30 lan egunetan, iragarkia argitara ematen den biharamunetik zenbatzen hasita, interesdunek espedientea ikusi ahal izan dezaten, eta egoki iritzitako erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal ditzaten.

**HIRUGARRENA.-** Jendaurreko epean erreklamaziorik ez balego, plana behin betiko onartutzat ematea.

**Tolosako Udaleko Lurraldea Batzordea, 2025eko ekainaren 18an egindako bilkuran, irizpen proposamen hau aztertu eta bozkatu du. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:**

**Aldeko botoak:** Ander Figuerido Zubiria, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Aitor Aguirresarobe Murgui.

**Abstentzioak:** Xarles Iturbe Pasaban, Jose Francisco Amantegi Zubiria eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udal Batzaren Osoko Bilkurari:

### IRIZPENA

**LEHENA.-** HASIERAKO ONESPENA EMATEA 2025eko apirilaren 29an Ingartek Consulting SLk aurkeztutako Tolosako Irisgarritasun Unibertsalaren Plan Integralari.

**BIGARRENA.-** Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko Web orrian ([www.tolosa.eus](http://www.tolosa.eus)), eta iragarki taulan argitaratzea. Eta, era berean, adierazitako plana jendaurrean jartzea 30 lan egunetan, iragarkia argitara ematen den biharamunetik zenbatzen hasita, interesdunek espedientea ikusi ahal izan dezaten, eta egoki iritzitako erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal ditzaten.

**HIRUGARRENA.-** Jendaurreko epean erreklamaziorik ez balego, plana behin betiko onartutzat ematea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Miren Yosune Sanz Vidal, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du Tolosako Irisgarritasun Unibertsalaren Plan Integralaren irizpena.

LURRALDEA LAN ESPARRUKO INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORRAREN 2025EKO EKAINAREN 18KO GAI ZERREDAKO IRIZPENAREN ALDAKETA ETA PREMIATASUNA DIRELA ETA, UDALBATZAK, PREMIATASUNA GEHIENGOZ ONARTU ONDOREN, HONAKO GAI HAU AZTERTU DU:

DEBIDO A LA MODIFICACIÓN Y URGENCIA DEL DICTAMEN DEL ORDEN DEL DÍA DE LA COMISIÓN INFORMATIVA PERMANENTE DEL ÁMBITO DE TRABAJO DEL TERRITORIO, DE 18 DE JUNIO DE 2025, EL PLENO, TRAS APROBAR POR MAYORÍA LA URGENCIA, HA TRATADO EL SIGUIENTE ASUNTO:

7. PUNTUA. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ESPEDIENTE HAU AMAITZEA: «TOLOSAKO HAPOKO ONDAREAREN UDAL KATALOGOAN HIRIGUNEKO HAINBAT TXALET TIPOLOGIAKO ERAIKINAK, BIZITEGI-ERAIKIN KOLEKTIBO ZEIN ERAIKIN INSTITUZIONALAK BARNERATZEKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA ETA, HORIETAN, HIRIGINTZAKO LIZENTZIA-EMATEAK ETETEA».

PUNTO 7. APROBAR, EN SU CASO, LA FINALIZACIÓN DEL SIGUIENTE EXPEDIENTE: INICIAR EL EXPEDIENTE DE INCLUSIÓN EN EL CATÁLOGO MUNICIPAL DEL PATRIMONIO DEL PGOU DE TOLOSA DE EDIFICIOS DE DIVERSA TIPOLOGÍA DE CHALETS, EDIFICIOS RESIDENCIALES COLECTIVOS E INSTITUCIONALES EN EL CASCO URBANO, SUSPENDIÉNDOSE EL OTORGAMIENTO DE LICENCIAS URBANÍSTICAS EN LOS MISMOS.

## I.- AURREKARIAK

2009ko martxoaren 3an, Udalbatzak ohiko osoko bilkuran behin betiko onespena eman zion Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (aurrerantzean, HAPO) testu bateginari, eta gaur egun indarrean dagoen Ondarearen Katalogoa HAPOren parte da; 3. dokumentua, hain zuzen ere.

Indarrean dagoen Ondarearen Katalogoak —lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 76. artikulua kontuan hartuta—, funtsean, duten balioa eta interesa kontuan harturik babestu behar diren ondasun artifizialak zein naturalak identifikatzea du helburu.

Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra behin betiko onartu eta gero, ordea, 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena, onartu zen. Lege berri honen helburu nagusia da kultura-ondarearen kudeaketa integrala bermatzea; hau da, alde batetik, ondarea identifikatu, dokumentatu, ikertu, kontserbatu eta babestuko duen kudeaketa, baina horrekin batera haren transmisioa, sustapena eta balio-nabarmentzea bermatzeko konpromisoa agerian utziko duena.

Eta, Legearen zioen azalpenean adierazten den moduan, kultura-balioak aldakorrek direnez, ondarearen kontzeptua bera etengabe eraikiz doa, eta hura osatzen duten elementuak ere mudakorrek dira eta ekarpen berriak hartzeko irekita daude. Horregatik euskal kultura-ondareari buruzko lege berri bat idazteko beharra ikusi zen, azken urteotan kultura-ondarearen kontzeptualizazioan gertatu den bilakaera ordenamendu juridikoan txertatzeko, ondare horren azterketa- eta jardun-eremua nabarmen zabaltzeko baita.

Euskal kultura-ondareari buruzko legeak zehazten ditu kultura-ondarearen arloan euskal administrazio publikoen hiru mailetako bakoitzari (Eusko Jaurlaritza, foru-erakundeak eta udalak) dagozkion jarduerak, eta jardura horien koordinazioaren ardura izango duen organoa sortzen du. Bestalde, hiru babes-maila bereizten dira, ondasunak dituen kultura-balioen garrantziaren arabera: babes berezia duten kultura-ondasunak, babes ertaina duten kultura-ondasunak eta oinarritzko babesak duten kultura-ondasunak (indarreko udal-plangintza urbanistikoko katalogoetan sartuta daudenak dira).

2022tik gaur arte Asociación Áncora para la Conservación del Patrimonio izeneko elkarteak udalari hainbatetan eskatu izan dio Ondarearen Udal Katalogoa berritzeko eta, bertan, gaur egun babesik ez duten hainbat ondasun sartzeko.

2022ko abenduaren 14an, Tolosako Udalak, bere udal-mugartean dagoen kultura-ondareari buruzko informazioa eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzari. Eta, hala, 2023ko urtarrilaren 12an, eskatutako informazio hori jaso zen, zeinetan ikusi zen gaur egun katalogoan barneratuta ez dauden ondasun asko zerrendatzen zirela.

Bestalde, 2023. urtean Eusko Legebiltzarrak 14/2023 Legea, azaroaren 30ekoa, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzekoa, onartu zuen. Lege honen zioen azalpenean jasotzen da Legearen xedea zein den: batetik, kultura-ondasun higiezin bat oinarritzko babes-mailan sartzeko irizpideak eta udal-katalogoak egoera berrira egokitzeko aldia zehaztea; eta, bestetik, energia-iturri berriztagarriak alternatiba jasangarri erreal gisa gero eta gehiago erabiltzen direnez, beharrezkoa da Euskal Kultura Ondarearen Legea aldatzea, iturri horiek ondareko ondasun higiezinetan sartzeko, bereziki bizitegi-izaerakoetan, energia-eraginkortasuna ondasun horien ondare-balioekiko errespetuarekin orekatuta lortzeko, eta higiezin horiek erabiltzeko uko egitea saihesteko, energia eskuratzeko kostu handiagoa dela eta.

Tolosako Udalak udal-mugartean dagoen kultura-ondarea babesteko asmoz, orain gutxi urtebete inguru urrats bat eman zuen. Izan ere, Udalbatzak, 2024ko maiatzaren 30ean, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, behin betiko onespina eman zion Tolosako HAPOko Ondarearen Udal Katalogoaren aldaketari (GAO 2024/06/13 114.zk.); San Frantzisko pasealekua 37 zenbakian dagoen «Villa Sagrado Corazón» eraikinari udal-babesa emanez.

Era berean, Tolosako Udalbatzak, 2024ko ekainaren 27an, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

*«11. Tolosako HAPOko Ondarearen Udal Katalogoan hiriguneko hainbat txalet tipologiako eraikinak, bizitegi-eraikin kolektibo zein eraikin instituzionalak barneratzeko espedienteari hasiera ematea eta, horietan, hirigintzako lizentzia-emateak etetea».*

Horretarako, kontuan hartu zen, batik bat, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzatik 2023ko urtarrilaren 12an jasotako informazioa, hainbat eraikin Tolosako HAPOko ondarearen udal-katalogoan barneratzea proposatzen zuena. Zehazki, udaleko arkitektoek proposatutako hiriguneko txalet tipologiako 18 eraikin, bestelako bizitegi-eraikin kolektiboko 25 eta 3 eraikin instituzional zerrendatu ziren; guztira 46 eraikin.

2024ko urriaren 25ean, 2024/2422 Zinegotzi Delegatuaren Dekretuaren bitartez, Tolosako Udalak Zetabi Arkitektura Bulegoa SLP kontratatu zen Tolosako HAPOko ondarearen udal-katalogoan eraikinak, bizitegi-eraikin kolektibo zein eraikin instituzionalak barneratzeko espedientearen zehaztutako eraikinen ondare-azterketa gauzatzeko eta hauen banakako fitxak idazteko; baita «Villa Sagrado Corazón» eraikinaren fitxa idazteko ere (2024SCME0017 espedientearen)

2025ko ekainaren 12 eta 13an Zetabi Arkitektura Bulegoa SLP enpresak Tolosako Udalean aurkeztu zuen Tolosako HAPOko ondarearen udal-katalogoan eraikinak, bizitegi-eraikin kolektibo zein eraikin instituzionalak barneratzeko espedientearen zehaztutako eraikinen ondare-azterketa, zehazki, kontratuko 1 eta 2 faseko lanak. Zehazki honako dokumentuak.

- 1. fasea: Katalogoaren aurreazterketa.
- 2. fasea:
  - o Memoria txostena
  - o Fitxak
  - o Planoa

## KONTUAN HARTURIK

### **II.- AZTERKETA TEKNIKOA**

#### **II.1.- TXOSTENAREN HELBURUA**

Txosten honen xedea da aztertzea Tolosako HAPOko Ondarearen Udal-katalogoan hiriguneko txalet tipologiako eraikinak, bizitegi-eraikin kolektibo eta eraikin instituzionalak barneratzeko Zetabi Arkitektura Bulegoa SLP enpresak egindako ondare-azterketa; eta, egokia dela ikusiz gero, ontzat ematea da.

## II.2- ONDAREAREN AZTERKETA

Zetabi Arkitektura Bulegoa SLP enpresarekin adostutako ondarearen azterketaren zerbitzu kontratua, hiru fasetan banatzen zen:

- 1. fasea: Zerrendako eraikinen oinarrizko azterketa bat, besteak beste, eraikinen identifikazioa, lan metodologia, ezaugarri historikoak, bilakaera eta ondorioak jasoko dira. Azterlanean zehar hala ikusiko balitz zerrendan ez dagoen beste eraikinen bat aztertu ahal izango da, beti ere, gehienera 52 eraikineko muga ezarritz.
- 2. fasea: Katalogoan sartzeko balioa dutela ondorioztatzen den eraikinen banakako fitxak idatziko dira. Era berean plano batean jasoko dira ondare balioa aitortzen zaien eraikinak.
- 3. fasea: Azken fase honetan, Udalbatzak hasierako onespina eman ondoren, alegazioak baleude, hauei buruzko txostena idatzi beharko da, eskumena duen administrazio sektorialen txostenak aztertzearekin batera. Guzti hau kontuan hartuta, dagozkion zuzenketak egin ondoren, behin betiko dokumentua idatziko da.

Txosten honetan, lanaren lehen eta bigarren faseak aztertuko dira; 3. fasea aurrerago etorriko baita. Dena den, fitxen lanketa eta memoria txostena paraleloan lantzen aritu direnez, sartutako dokumentazioak kontratuko edukia jasotzen du, baina honakoko dokumentuek osatzen dute:

- 1. fasea: Katalogoaren aurreazterketa.
- 2. fasea:
  - Memoria txostena
  - Fitxak
  - Planoa

### II.2.1- LEHEN ETA BIGARREN FASEA

Udalak definitutako zerrendan hiriguneko 47 eraikin jaso ziren eta horietako bat San Frantzisko kalea 37zk.ko «Villa Sagrado Corazón» eraikina izan zen. Eraikin hori dagoeneko HAPOko katalogoan barneratuta zegoen, baina ez zuen bere fitxa propioa. Zerrenda bi eranskinetan bereizten zen, hiriguneko txalet tipologiako 19 eraikin (horietako bat Villa Sagrado Corazón), bestelako 25 bizitegi-eraikin kolektibo eta 3 eraikin instituzionalek osatua.

I eta II eranskinetako eraikinen zerrenda honakoa da:

|    |                                                 |
|----|-------------------------------------------------|
| 01 | VILLA SAGRADO CORAZÓN                           |
| 02 | ARKAUTE TXALETA                                 |
| 03 | EGUZKI TOKI                                     |
| 04 | GARMENDIA ETXEA (VILLA ITXAROPENA)              |
| 05 | GUADALUPE FABRIKA. LANGILEEN ETXEBIZITZA (55-1) |
| 06 | GUADALUPE FABRIKA. LANGILEEN ETXEBIZITZA (55-2) |
| 07 | IBAI-GAIN                                       |
| 08 | IBARRALDE KALEA 1 ETXEA. VILLA PEPITA           |

|    |                                                    |
|----|----------------------------------------------------|
| 09 | IBARRALDE KALEA 3 ETXEA. VILLA JESUSA              |
| 10 | IRUÑA ETORBIDEA 2-4 ETXEA                          |
| 11 | IZASKUN ETXEA                                      |
| 12 | KONDEANEKO ALDAPA 7 ETXEA (URRUTITXO)              |
| 13 | KONDEANEKO ALDAPA 30 ETXEA                         |
| 14 | SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 20 ETXEA                 |
| 15 | SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 22 ETXEA                 |
| 16 | SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 43 ETXEA                 |
| 17 | UZTURRE kalea 4-10 ETXEA                           |
| 18 | VILLA MARIA                                        |
| 19 | VILLA MARIA JUANITA                                |
| 20 | ARANGUREN ETA ANTZUOLA ERAIKINAK                   |
| 21 | BANCO GIPUZCOANO                                   |
| 22 | BELATE PASEALEKUA 1 BIS ETXEA                      |
| 23 | BIDEZAINEN ETXEA                                   |
| 24 | BIZKAIA TALDEA 11-15                               |
| 25 | FELIPE GORRITI 4 PLAZA ETXEA                       |
| 26 | FORU ETORBIDEA 1 ETXEA                             |
| 27 | FORU ETORBIDEA 2 ETXEA                             |
| 28 | GELTOKI ETXEA 1                                    |
| 29 | GRUPO ANDRA MARI                                   |
| 30 | GUDARI 1 ETXEA                                     |
| 31 | IGERALDE ETXEA 17-19                               |
| 32 | KONDEANEKO ALDAPA 3 ETXEA                          |
| 33 | LASKOAIN ETXEA 10-12                               |
| 34 | NAFARROA ETXEA 13                                  |
| 35 | OYARBIDE HOSTALA                                   |
| 36 | P. ZABALA KAPITAINAREN TALDEA                      |
| 37 | SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 1 ETXEA                  |
| 38 | SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 17 ETXEA                 |
| 39 | SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 35                       |
| 40 | SANTA KLARA 3 ETXEA                                |
| 41 | ZUBEROA TALDEA                                     |
| 42 | KONDEANEKO ALDAPA 12-14 ETXEAK                     |
| 43 | ZUMALAKARREGI PASEALEKUA 1 ETXEA                   |
| 44 | ZUMALAKARREGI PASEALEKUA 3-4 ETXEA                 |
| 45 | BIGARREN MAILAKO OSASUN-ZENTROA ETA AMA<br>KLINIKA |
| 46 | ESKOLA ZAHARRAK                                    |
| 47 | URETA HIGIEZINEN ELKARTEA                          |

Zetabik aurreazterketa bat egin du, zerrendako eraikin guztiak aztertuz eta memoria txostenean jasotzen da, besteak beste, lanaren xedea, aurrekariak, lan metodologia, proposatutako elementuen zerrenda eta eraikinen fitxak.

Memoria txosteneko 3.2 puntuan, azterketaren baldintzatzaileak honela adierazten dituzte:

*«Eraikin gehienak jabego pribatukoak izatean ezin izan dira barrutik bisitatu, beraz eraikinak kanpotik izan duen bilakaera bakarrik aztertu ahal izan da. Beraz, barruko elementuen ezaugarri, bilakaera eta ondare balioak esku-hartze honen mugetatik haratago gelditzen dira.*

*Ondare balioari dagokion azterketa bat egitea helburu izanik ez da eraikinaren kontserbazio egoeraren baloraziorik egin. Hori beste EIT bezalako beste ikuskaritza lan batzuen esparrua izango litzateke».*

### LAN METODOLOGIA

Memoria txosteneko 5. Puntuan Lan Metodologia deskribatzen dute. Lana, ikerketa historiko eta arkitektonikoan eta fitxen proposamenean oinarritzen da. 5.1 atalean argitzen dute helburua ez dela elementuaren kontserbazio-egoera baloratzea, baizik ondare balioa duten ala ez zehaztea.

#### Azterketa historiko-arkitektonikoa

Lehenik, eraikinen sorrera eta bilakaera historikoaren inguruko informazioa aurkitu da, honakoa informazioa zehaztuz: eraikuntzaren tipologia, arkitektura estiloa, eraikuntza ezaugarriak, materialak eta elementu apaingarriak.

#### Ondare balioak

Memoria txosteneko 5.3 puntuan babesteko balioak honela deskribatzen dituzte:

*«Babesten den elementua eraikina bere osotasunean izan arren, baliozko elementuen laburpen bat ere zehazten da fitxetan, etorkizunean proposamenak garatzeko orduan lagungarri izan daitezen.*

*Balioen artean eraikinaren tipologia eta izaera, elementu apaingarriak, estilo bakoitzaren elementu esanguratsuenak eta hiriko paisaia kalitatean edota hiri-bilbean josteko moduak daude.*

*Zehaztutako adibideak galtzeak, Tolosako hirigintzaren historiako atal garrantzitsu baten galera ekarriko luke.*

*Higiezinen garapenaren inguruko presioa dela eta, garaiz balioesteko neurriak hartzen ez badira, gaur egun babes gabe aurkitzen diren elementu erreferentzialak desagertzea ekar dezake, txalet tipologiako eraikinetan gehien bat».*

## Babes maila

Aztertutako eraikin guztiak, 6/2019 Legearen 8. artikularen arabera 2. puntuako udal babesa erregimenarekin babesten dira, memoriako 5.4 puntuan adierazten eta arrazoitzen den bezala.

*«Zerrendaturiko eraikinek daukaten ondare balio nagusia paisajistikoa da, garai eta hirigintza mota baten azken laginak baitira.*

*Kasu hauetan lehenesten diren gaiak bi dira, alde batetik ondarearen izaera babestea eta bestetik eraikinak bizigarriak izaten jarraitzea.*

*Bi gai hauek era egokian aurrera eraman ahal izateko, babes eta esku-hartze aukeren arteko oreka beharrezkoak dira. Esku-hartze aukerak zehazteko orduan, irizpide orokorrak identifikatu dira, eraikinek etorkizunean izan ditzaketen beharrak aldatzen joan bait daitezke, indarrean dauden araudiak ere aldatu daitezkeen moduan. Beraz, esku-hartze zehatzak gauzatze proiektua idaztean aurkeztu beharko dira, unean uneko behar eta araudiei egokitzuz, baina betiere orain zehazturiko irizpideak betetzen direla bermatuz».*

## ZERRENDATIK KANPO GERATU DIREN ERAIKINAK

Zetabi Arkitektura Bulegoa SLP enpresakoek, Eusko Jaurlaritzako zerrendan egon arren, babesteko adinako baliorik ez duten eraikin batzuk identifikatu dituzte. Honako zazpi eraikin hauek dira eta memoria txosteneko 6.4 atalean jasotzen dira:

|                                                 |
|-------------------------------------------------|
| GUADALUPE FABRIKA. LANGILEEN ETXEBIZITZA (55-2) |
| FELIPE GORRITI 4 PLAZA ETXEA                    |
| SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 35                    |
| IGERALDE ETXEA 17-19                            |
| BIZKAIA TALDEA 11-15                            |
| SANTA KLARA 3 ETXEA                             |
| ZUMALAKARREGI PASEALEKUA 3-4 ETXEA              |

Honakoak dira, kasuan kasu, ez babestearen arrazoiak:

### **Guadalupe-Fabrika langileen etxebizitza. (Donostia etorbidea 20)**

Baztertzeko arrazoiak: eraikinak obra sakonak jasan ondoren guztiz eraldatua gelditu izana. Honela jasotzen da azterlaneko memorian:

*«Eraikin honek obra sakonak jasan ditu eta guztiz eraldatuta gelditu da. 1932 Guillermo Eizaguirre arkitektoak “La Guadalupe” paper-fabrikako langileentzako egindako etxebizitza proiektua. Jatorrizko eraikina langileentzako etxebizitza izaera zuen eraikin bakartua, aintzinako fabrikaren (“La Guadalupe” paper-fabrika) inguruan kokatzen zena eta haren zerbitzura aritzen ziren langileentzako eginak.*

*Ondoren 1994an Eugenio Isturitz arkitektoak eraikina guztiz moldatu zuten, nahiz eta neurri batean jatorrizkoaren estilo eklektikoa mantendu. Gaur egungo eraikinak ez du jatorrizkoaren antzik eta fatxadako sarrerako arkua eta horma zati bat besterik ez ditu mantentzen. jatorrizkoaren antzik eta fatxadako sarrerako arkua eta horma zati bat besterik ez ditu mantentzen».*

Jatorriko planoak eta gaur egungo argazkiak gehitu dituzte.

#### **Felipe Gorriti 4 plaza.**

Baztertzeko arrazoiak: eraikinak obra sakonak jasan ondoren guztiz eraldatua gelditu izana. Honela jasotzen da azterlaneko memorian:

*« (...)Gorriti plaza 4 eraikinean plazara ematen duen behe solairuko horma zatia besterik ez da jatorrikoa.*

*Eraikina ia erabat eraitsi zen 2004an, jatorrizko eraikinetik plazara irekitako beheko solairua bakarrik kontserbatu zen, eta plaza ere aldatu egin zen. Gainerakoa fabrika berria da, baina jatorrizko eraikuntza-eredua errespetatuz. Jatorrizko eraikinean 1849an, Savoiako Karlos Alberto erregeak Sardiniako erresumako koroa abdikatu zuen bere seme Victor Manuelengan; eraikin berean hil zen 1896an Felipe Gorriti, plazari izena eman zion konpositorea».*

Argazkiak gehitu dituzte, eraikina eraitsita ikusten da batean eta bestean gaur egungo eraikina.

#### **Frantzisko pasealekua 35 eraikina**

Baztertzeko arrazoiak: eraikinak obra sakonak jasan ondoren guztiz eraldatua gelditu izana. Honela jasotzen da azterlaneko memorian:

*«San Frantzisko 35 eraikina guztiz moldatuta dago eta gaur egungo eraikinak fatxadako hormen L bat mantendu zen 3 altueretan. Jatorrizko eraikinak behe oina gehi bi eta teilatuazpia zituen, gaur egungoak aldiz sotoa, behe oina eta lau solairu altu ditu. Torreori ere altuera gehiago eman zitzaion.*

*Jatorrizko eraikina Guillermo de La Lamak sustatu zuen 1905ean, Julian Eizaguirre obra-maisuren trazapean. Eraikina 2000. urtean eraitsi zen, Juan Labayen Celaya eta Jaime Labayen Celaya arkitektoen proiektupean. Jatorrizko eraikinetik fatxada nagusia eta alboko fatxadako bakarra berrerabili ziren, beste eraikuntza guztia erautsi eta berria eraiki zelarik».*

Jatorriko planoak eta gaur egungo argazkiak gehitu dituzte.

### Igeralde 17.19

Baztertzeko arrazoa: eraikinek ez dute proiektatu zireneko multzoa osatzen. Honela jasotzen da azterlaneko memorian:

*«Jatorrian hiru blokez osatutako multzoa izan arren bakarra eraiki zen Igeralde kaleari paraleloan. Bizkaia eta Izaskungo multzoaren alboan kokatzen den arren, estilo eta garai horretako multzo askoz esanguratsuagoa Izaskungo Andre Maria Taldeko etxebizitzek (1etik 11rako atariak) osatzen dute. Mota honetako promozioek eraikinez gain, auzo izaera garatuagoa duelako, bere espazio publikoarekin. Beraz zerrendatik ateratzea proposatu zen.*

*Izaskungo multzoa eta Bizkaiako eraikina bezala, Igeralde kaleko eraikina ere Joaquín Labayen arkitektoarena da, kasu honetan Jose Carrerasentzat eraikia 1953an. Izaskungoa baino piska bat beranduago eta Bizkaiakoaren aurretik».*

Jatorriko planoa eta gaur egungo argazkiak gehitu dituzte.

### Bizkaia taldea 11-15

Baztertzeko arrazoa: eraikinei garai bereko beste talde batzuekin alderatuta talde izaera falta zaie. Honela jasotzen da azterlaneko memorian:

*«Garai bereko langileentzako etxebizitza xumeak dira baina ez dute talde izaerarik, adibidez, estilo eta garai horretako multzo askoz esanguratsuagoa Izaskungo Andre Maria Taldeko etxebizitzek (1etik 11rako atariak) osatzen dute. Multzo hauek, auzo izaera garatuagoa dute, eta etxebizitzak kanpo espazio publikoarekin batera garatzen dira. Eraikin pribatu eta hauei loturiko espazio publikoaren arteko erlazioak ematen die garai hartako eraikin multzoei ezaugarri esanguratsuenak. Bi eraikin hauek ez dutena. Izaskungo multzoa eta Igeraldeko eraikina bezala Bizkaia kaleko eraikina ere Joaquín Labayen arkitektoarena da, kasu honetan Jose Carrerasentzat eraikia 1953an. Beste bien jarraian, baina piska bat beranduago».*

Jatorriko planoa eta gaur egungo argazkiak gehitu dituzte.

### Santa Klara etxea 3

Baztertzeko arrazoa: informazio historikorik ez dago eta alde zaharreko beste eraikin askoren antzekoa da, ez du arkitektura aldetik balore berezirik. Honela jasotzen da azterlaneko memorian:

*«Oinplano karratuko mehelin-arteko etxea da, hiru isurkiko teilatuarekin. Harlangaitzezko horma zarpiatuz amaitua; pilastra izkinak, solairuak bereizteko platabandak eta baoen inguruak izan ezik, harlanduzkoak baitira. Fatxada nagusia oso erregularra da, bost bao-ardatz bertikaletan antolatuta. Beheko solairuan, erdiko sarrera dinteldua dago, zirkuluerdiko arku handi baten azpian eta jatorrizko antolamenduarekin bat ez datozen eta geroagoko birmoldaketan emaitza diren beste bao batzuen ondoan. Fatxada dinamizatu egiten da ardatz bikoitietan gainjarritako balkoi irtenen eta bakoitietan hegalkinik ez duten balkoien bidez, eta horien guztien karela barrote soilak dira. Atzealdean, harlangaitz-horma batez inguratuta dagoen lur-eremu propioa dauka.*

*XIX. mendearen erdialdeko eraikuntzekin erlaziona daitekeen eraikuntza da. Eredu hori oso zabaldua dago hirigunean, eta ondare-balio oso txikiak ditu. Ez da berritze lan handirik ezagutzen».*

Gaur egungo irudi bat gehitu dute.

### **Zumalakarregi 3-4 eraikina**

Baztertzeko arrazoia: eraikinak ez du arkitektura aldetik balore berezirik, 1950 hamarkadako beste eraikin ugari dago zabalgunean. Honela jasotzen da azterlaneko memorian:

*«Tolosako zabalkundean kokatua dagoen familia anitzeko etxebizitza eraikina, José Lorenzo Chacón Balerdik sustatu zuen, Adrián Lasquibar arkitektoaren trazapean. 1950eko hamarkadako adibide tipikoa da, oso kontzepzio soilarekin eta apaingarrien arazketarekin (moldura txikietara murriztua), eta leihoetan eta balkoietan ikus daitezkeen lerro geometrikoen tratamendu zainduarekin. 2010ean, solairu bat gehiago eraikitze baimena eman zitzaion, eta 2011an, hainbat birgaitze-obra egin ziren (hormigoi armatuzko egitura sendotu eta konpondu zen hainbat puntutan; estalkia guztiz berritu zen, patioetako itxiturak berritu ziren; alboko fatxadako (Batzoki) fibrozementuzko estaldura kendu zen, eta kutsatzen ez zuen beste plaka bat jarri zen)».*

Jatorriko planoak eta gaur egungo argazkiak gehitu dituzte.

7 eraikin hauek babesteko adinako baliorik ez dutela behar bezala justifikatu da.

### **PROPOSATUTAKO ELEMENTUEN ZERRENDA**

Azterlanetik, zerrendan ez zegoen **Santa Klara 1** eraikina, Mokoroka etxea, babestu beharreko eraikina dela ondorioztatu dute, izan ere, Santa Klara 3 eraikinaren antzerako tipologia izan arren, adibide esanguratsuagoa delako. Beraz, guztira, honako eraikin hauen fitxak egin dituzte.

| FITXA | HELBIDEA                     | IZENA                                           |
|-------|------------------------------|-------------------------------------------------|
| 1     | BELATE PASEALEKUA 1 BIS      | BELATE PASEALEKUA 1 BIS ETXEA                   |
| 2     | DONOSTIA ETORBIDEA 2         | BIDEZAINEN ETXEA                                |
| 3     | DONOSTIA ETORBIDEA 21        | GUADALUPE FABRIKA. LANGILEEN ETXEBIZITZA (55-1) |
| 4     | ELKANO ETA ALMIRANTE REKALDE | P. ZABALA KAPITAINAREN TALDEA                   |
| 5     | ESKOLAPIO LORATEGIA 4        | BANCO GIPUZKOANO                                |
| 6     | FELIPE GORRITI PLAZA 1       | OYARBIDE HOSTALA                                |
| 7     | FORU ETORBIDEA 1             | FORU ETORBIDEA 1 ETXEA                          |
| 8     | FORU ETORBIDEA 2             | FORU ETORBIDEA 2 ETXEA                          |
| 9     | GELTOKI KALEA 1              | GELTOKI ETXEA 1                                 |
| 10    | GUDARI KALEA 1               | GUDARI 1 ETXEA                                  |

| FITXA | HELBIDEA                     | IZENA                                           |
|-------|------------------------------|-------------------------------------------------|
| 11    | IBAIONDO KALEA 7             | IZASKUN ETXEA                                   |
| 12    | IBARRALDE 1                  | IBARRALDE KALEA 1 ETXEA. VILLA PEPITA           |
| 13    | IBARRALDE 3                  | IBARRALDE KALEA 3 ETXEA. VILLA JESUSA           |
| 14    | IBARRALDE 5                  | VILLA MARIA                                     |
| 15    | IRUÑA ETORBIDEA 2-4          | IRUÑA IBILTOKIA 2-4 ETXEA                       |
| 16    | IZASKUNGO AMA PLAZA 1-11     | GRUPO ANDRA MARI                                |
| 17    | KONDEANEKO ALDAPA 3          | KONDEANEKO ALDAPA 3                             |
| 18    | KONDEANEKO ALDAPA 7          | KONDEANEKO ALDAPA 7 ETXEA (URRUTITXO)           |
| 19    | KONDEANEKO ALDAPA 8          | IBAI-GAIN                                       |
| 20    | KONDEANEKO ALDAPA 9          | GARMENDIA ETXEA (VILLA ITXAROPENA)              |
| 21    | KONDEANEKO ALDAPA 10         | VILLA MARIA JUANITA                             |
| 22    | KONDEANEKO ALDAPA 12         | KONDEANEKO ALDAPA 12 ETXEA                      |
| 23    | KONDEANEKO ALDAPA 14         | KONDEANEKO ALDAPA 14 ETXEA                      |
| 24    | KONDEANEKO ALDAPA 30         | KONDEANEKO ALDAPA 30 ETXEA                      |
| 25    | KONDEANEKO ALDAPA 32         | EGUZKI TOKI                                     |
| 26    | LARRAMENDI 2-4-6             | ARANGUREN ETA ANTZUOLA ERAIKINAK                |
| 27    | LARRAMENDI 5                 | ARKAUTE TXALETA                                 |
| 28    | LASKOAIN 10-12               | LASKOAIN ETXEA 10-12                            |
| 29    | NAFARROA ETORBIDEA 6         | BIGARREN MAILAKO OSASUN-ZENTROA ETA AMA KLINIKA |
| 30    | NAFARROA ETORBIDEA 13        | NAFARROA ETXEA 13                               |
| 31    | PEDRO TOLOSA PASE. 2         | SAN FRANTZISKO PASEALEKUIA 43 ETXEA (ORIABURU)  |
| 32    | RONDILLA KALEA 34B           | ESKOLA ZAHARRAK                                 |
| 33    | SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 1  | SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 1 ETXEA               |
| 34    | SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 17 | SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 17 ETXEA              |
| 35    | SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 20 | SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 20 ETXEA              |
| 36    | SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 22 | SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 22 ETXEA              |
| 37    | SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 37 | VILLA SAGRADO CORAZÓN                           |
| 38    | SANTA KLARA 1                | SANTA KLARA KALEA 1                             |
| 39    | UZTURRE 4-6-8-10             | UZTURRE KALEA 4-6-8-10                          |
| 40    | ZUBEROA 1-4                  | ZUBEROA TALDEA                                  |
| 41    | ZUMALAKARREGI PASEALEKUA 1   | ZUMALAKARREGI PASEALEKUA 1 ETXEA                |
| 42    | ZUMALAKARREGI PASEALEKUA 2   | URETA HIGIEZINEN ELKARTEA                       |

Ondare azterketak adierazitako 47 eraikinak aztertuta, ondorioztatu dute: 7 eraikinek babesteko adinako baliorik ez dutela, Santa Klara 1 eraikinak eta babesteko adinako balioa duela eta Kondeaneko aldapa 12 eta 14 eraikinentzat fitxa egin behar zela. Hori horrela guztira 42 fitxa egin dituzte helbidearen baitan eta alfabetoaren hurrenkeran ordenatuta.

Memoria txosteneko 6. puntuan, proposatutako eraikinen zerrendak osatu dituzte, eta sailkapen atal bat ere gehitu dute, tipologiaren arabera, antolaketa kronologikoaren arabera eta zerrendatik kanpo geratu direnak.

### ERAIKINEN FITXA

Fitxa bakoitzak honako egitura du:

- Identifikazioa: Bere baitan eraikinaren tipologia, ondare mota, eraikitze urtea, katastroko azalera, profila, erreferentzia katastrala eta helbidea datuak jasotzen dira.
- Deskribapena: Bertan, deskribapen orokor bat egiten da, ezaugarri historiko eta bilakaerak jasotzen dira, era eraikinaren egoera jasotzen da.
- Araudia: Bertan, 6/2019 Legearen baitan eraikinaren babes maila, balioa duten elementuak, jarduteko irizpideak eta bibliografia jasotzen da.
- Informazio grafikoa: Bertan, eraikinaren bilakaeraren gaineko dokumentazio grafikoa jasotzen da.
- Deskribapen gehigarria: Eraikinaren deskribapen xehatua egiten da.

Deskribapen xehatua ezik, gainerakoa bi hizkuntzetan, euskaraz eta gazteleraz idatzia dago.

### Esku-hartze irizpideak

Azterlanen memoriako 7.3 puntua definitzen dituzte esku-hartze irizpideak, tipologia arabera sailkatuta. Honakoak irizpideak definitu dira: fatxaden kanpotiko isolamendua, fatxadetako baoak, baoetako arotzeria, forjatzko burdineria eta irisgarritasuna. Gainera, fitxetan identifikatutako elementu itsugarriak kentzeko irizpidea finkatzen dute.

Atal honetan amaitzeko, beraiez azterlanaren arabera babesteko balioa duten eraikinen bat katalogotik kanpo geratuko balitz, eraikinaren erregistro planimetriko eta historiko bat egin beharko dela adierazten dute.

## PLANOA

Bi planoetan jaso dituzte babesteko balioa duten eraikinak, lehena herria osotasunean jasotzen duen eskalan eta bestea hirigunea jasotzen duen eskalan. Bietan dagokion fitxa zenbakiarekin identifikatu dira eraikinak eta bigarreanean alboan fitxa bakoitza identifikatzen duen legenda dago.

## III.- ONDORIOA

Zetabi Arkitektura Bulegoa SLP enpresak Tolosako HAPOko Ondarearen Udal-Katalogoan I eta II eranskinetan zerrendatutako hiriguneko txalet tipologiako eraikinak, bizitegi-eraikin kolektibo eta eraikin instituzionalak barneratzeko eraikinen azterketakn, 48 eraikin azertu ditu, eranskinetako 47ak eta Santa Klara 1 zenbakiko eraikina. Egindako azterketatik ordea, zerrendako 7 eraikini ez diote babesteko adinako baliorik aitortzen. Hori horrela, eta kontuan hartuta Kondeaneko aldapa 12 eta 14 eraikin bakoitzarentzat fitxa bat egin dutela, guztira 42 fitxa egin dituzte. Ondorioz, San Frantzisko kalea 37 eraikina «Villa Sagrado Corazón» dagoeneko babestua dagoen eraikina dela kontuan hartuta, azterketak 41 eraikin babestea ondorioztatzen du.

Beraz, kontuan izanik aurrekariak, azterketa teknikoa, eta ondorioak ondoko irizpen-proposamena egiten zaio Lurralde Batzorde Informatiboari:

**LEHENA.-** Betetzat eta ontzat ematea Zetabi Arkitektura Bulegoa SLP enpresak Tolosako Udalarekin duen kontratuaren baitan, 2025eko ekainaren 12 eta 13an (aurkeztutako 8378, 8380, 8397 eta 8401 sarrera erregistroak), 1 eta 2 faseko lanak; hots, Tolosako HAPOko Ondarearen Udal-Katalogoan I eta II eranskinetan zerrendatutako hiriguneko txalet tipologiako eraikinak, bizitegi-eraikin kolektibo eta eraikin instituzionalak barneratzeko eraikinen azterketa eta egindako 42 fitxak.

**BIGARRENA.-** Amaiera ematea Tolosako HAPOko Ondarearen Udal-Katalogoan I eta II eranskinetan zerrendatutako hiriguneko txalet tipologiako eraikinak, bizitegi-eraikin kolektibo eta eraikin instituzionalak aztertzeko eta dagokien fitxa osatzeko; dagokien babes-maila eta babestutako elementuak zein erregimena zehazteko abiarazitako espedienteari.

**Tolosako Udaleko Lurraldea Batzordeak, 2025eko ekainaren 18an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau azertu eta bozkatu du. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:**

**Aldeko botoak:** Ander Figuerido Zubiria, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Aitor Aguirresarobe Murgui.

**Abstentzioak:** Xarles Iturbe Pasaban, Jose Francisco Amantegi eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Kontuan izanik Lurraldea Batzorde Informatiboak bozkatutako lehenengo puntua ez dagokiola Udalbatzari onartzea, irizpen-proposamenetik kendu egiten da. Eta, ikusirik bozkatutako bigarren puntuaren idazketa ez dela argia, paragrafo hori zuzendu egiten da:

Honakoa zioen tokian:

«**BIGARRENA.-** Amaiera ematea Tolosako HAPOko Ondarearen Udal-Katalogoan I eta II eranskinetan zerrendatutako hiriguneko txalet tipologiako eraikinak, bizitegi-eraikin kolektibo eta eraikin instituzionalak aztertzeko eta dagokien fitxa osatzeko; dagokien babes-maila eta babestutako elementuak zein erregimena zehazteko abiarazitako espedienteari.»

Honela izan behar du:

Onartzea, hala badagokio, amaiera ematea espediente honi: "Tolosako HAPOko Ondarearen Udal Katalogokoan hiriguneko hainbat txalet tipologiako eraikinak, bizitegi-eraikin kolektibo zein eraikin instituzionalak barneratzeko espedienteari hasiera ematea eta, horietan, hirigintzako lizentzia-emateak etetea".

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**LEHENA.-** Onartzea, hala badagokio, amaiera ematea espediente honi: "Tolosako HAPOko Ondarearen Udal Katalogokoan hiriguneko hainbat txalet tipologiako eraikinak, bizitegi-eraikin kolektibo zein eraikin instituzionalak barneratzeko espedienteari hasiera ematea eta, horietan, hirigintzako lizentzia-emateak etetea".

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Miren Yosune Sanz Vidal, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi eta Miren Garbiñe Marzol Ormazabal.

**Abstentzioak:** Xarles Iturbe Pasaban, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du amaiera ematea espediente honi: "Tolosako HAPOko ondarearen Udal katalogokoan hiriguneko hainbat txalet tipologiako eraikinak, bizitegi-eraikin kolektibo zein eraikin instituzionalak barneratzeko espedienteari hasiera ematea eta, horietan, hirigintzako lizentzia-emateak etetea".

**8. PUNTUA. EAJ/PNV UDAL TALDEAK  
AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:  
UZTURREKO GURUTZEA TOLOSAKO  
UDALAREN HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN  
OROKORRAREN «3. KATALOGOAN»  
DOKUMENTUAN SARTZEA.**

**PUNTO 8. PROPOSICIÓN PRESENTADA POR  
EL GRUPO MUNICIPAL EAJ/PNV: PARA LA  
INCLUSIÓN DE LA CRUZ DE UZTURRE EN EL  
DOCUMENTO «3. CATÁLOGO» DEL PLAN  
GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DEL  
AYUNTAMIENTO DE TOLOSA.**

EAJ/PNV udal taldeak aurkeztu duen proposamenak honela dio:

**UZTURREKO GURUTZEA TOLOSAKO UDALAREN HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN  
OROKORRAREN “3. DOKUMENTUAN-KATALOGOAN” SARTZEA.**



Uzturreko gurutzea Tolosako eta eskualdeko paisaiaren elementu ikonikoa da. Uzturre mendiaren tontorrean dago, 700 metro inguruko altueran. Gaur egungo gurutzeak, 1927an eraikia, 10 metro eta erdiko altuera zuen aurreko bat ordezkatu zuen, garai hartan Euskadiko mendietako altuenetakoa izan zena. Uzturre mendiak, Tolosaldeko arnagune berde gisa, inguruko ikuspegi ikusgarriak eskaintzen ditu, eta erreferentziatzko lekua izan da eta da mendizaleentzat eta bertako biztanleentzat.

Komunitatearentzako leku enblematikoa da, Tolosarako eta bere eskualderako gune garrantzitsua. Uzturreko gurutzea ez da puntu geografiko bat bakarrik; historia aberatsa eta esanahi berezia duen sinboloa ere bada Tolosa eta bere inguruaren nortasunarentzat. 1927an eraiki zuten, Aralarko Adiskideen Elkarteak sortu zen urte berean. Uzturreko gurutzea Tolosako kultura-ondarea da, eta haren oroimen kolektiboaren parte da.

Hainbat gertakarik inguratzen dute 10 metro eta erdiko altuera izan zuen lehen gurutzea. Garai hartan garaienetakoa izan zen euskal mendietan. Eraikitzaileek marmolezko bi plaka oroigarri jarri zituzten gurutzean eta Emeterio Arrese olerkari ibartarraren bertso batzuk. Amildegitik babesteko baranda eta gailurrean postontzi bat ere jarri zituzten. Garai hartako datuek gogorarazten dute inaugurazioa maiatzaren 1ean izan zela eta orduko gastuak 400 pezetakoak izan zirela.

MENDI-GAÑEAN BESO  
ZABALIK ZAUDE GURUTZE  
LAZTANA  
OTOI-EGIÑEZ MUIN EMAN-  
ZALE APALKI NATOR  
ZUGANA.

(Emeterio Arrese)



Kronika historikoen arabera, 1942ko otsailean, haize bortitzen ondorioz, gurutzea erori egin zen. Ibartarrek eta tolosarrek ez zuten bertan gurutze bat jartzeko ahaleginean etsi, eta handik gutxira beste gurutze handiago bat eraiki zuten. Alpino Uzturre klubeko kideak eta partikularrak arduratzen dira garbi eta zuri mantentzeaz.

Gaur gaurkoz, Udal Gobernuak Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren "3. Dokumentua – Katalogoa"-ren berrikusketa partzial bat abiatu du legealdi honetan eta testuinguru horretan jaiotzen da proposamen hau.

Gogoan izan behar da "3. Dokumentua – KATALOGOA"-ren xedea, funtsean, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 76. artikuluan ezarritakoaren arabera, babestu beharreko ondasun artifizialak eta naturalak identifikatzea dela, haien balioa eta interesa kontuan hartuta.

Guzti honengatik, **EAJ-PNVko Udal Taldeak honako hau proposatzen du:**

- Uzturreko gurutzea udalerriko hirigintza-ondarean babestutako ondasun eta elementuen zerrendan sartzea (II. mailakoa, udalaren babes-maila), Tolosako eta eskualdeko biztanleentzat duten balio historiko, emozional eta sinbolikoagatik.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Xarles Iturbe Pasaban, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

**Aurkako Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Miren Yosune Sanz Vidal, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi eta Miren Garbiñe Marzol Ormazabal,

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, ez du onartu EAJ/PNV Udal taldeak aurkeztutako proposamena.

**9. PUNTUA. EAJ/PNV ETA PSE-EE/PSOE UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA: DATORREN URTEKO AURREKONTUEI BEGIRA (2026.URTEA) TOLOSAKO UDALAK KONPROMISO BAT HARTZEA ORIAKO TXIRRINDULARITZA ESKOLAK JOSE MARI ANZA MEMORIALA ANTOLATZEKO BALIABIDE NAHIKOAK IZAN DITZAN.**

**PUNTO 9. PROPOSICIÓN PRESENTADA POR LOS GRUPOS MUNICIPALES EAJ/PNV Y PSE-EE/PSOE: QUE DE CARA A LOS PRESUPUESTOS DEL AÑO QUE VIENE (AÑO 2026), EL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA SE COMPROMETA A DOTAR A LA ESCUELA DE CICLISMO DE ORIO DE LOS RECURSOS SUFICIENTES PARA ORGANIZAR EL MEMORIAL JOSE MARI ANZA.**

EAJ/PNV eta PSE-EE/PSOE Udal taldeek aurkeztu duten proposamenak honela dio:

**DATORREN URTEKO AURREKONTUEI BEGIRA (2026.URTEA) TOLOSAKO UDALAK KONPROMISO BAT HARTZEA ORIAKO TXIRRINDULARITZA ESKOLAK “JOSE MARI ANZA” MEMORIALA ANTOLATZEKO BALIABIDE NAHIKOAK IZAN DITZAN.**

Pasa berri diren San Juan jaietan “Jose Mari Anza” Memoriala faltan bota dugu tolosarrok, hain historia luzea duen txirrindulari afizionatuen lasterketa ezaguna; eta batez ere, faltan bota dute txirrindularitzan afizionatu mailan dabiltzan kirolariek.

“Jose Mari Anza” Memoriala Tolosako San Juan jaien barruan sartzen zen eta urtero ospatu izan den txirrindularitza lasterketa maitatu bat da. Proba honetan 23 urte azpitik dauden txirrindulariek izan ohi zuten/dute parte hartzeko aukera.

2025. urteko San Juan jaietan ospatu behar zen edizioa, 47. edizioa izango zen. Gure ohituretan eta San Juan jaietako programan hain errotuta dagoen/zegoen afizionatuen lasterketa hau, erori egin da aurten, dirudienez, lasterketa antolatzen zuen/duen Oriako Txirrindularitza Eskolak hura antolatzekeo baliabide nahiko jaso ez dituelako Tolosako Udalaren partetik.

Zaila da ulertzen, 2025eko aurrekontuetan eliteko kirolarientzako dirulaguntza lerro berri bat lehenengoz Udal Gobernuak martxan jarri duenean, nola utzi den erortzen Tolosan hain finkatuta zegoen afizionatuen lasterketa bat. Oinarrizko kirola eta gure herriko klubek, tartean, nola ez, Oriako Txirrindularitza Eskolak, egiten duten borondatezko lana Udalak baloreari jarri behar dituela iruditzen zaigu, eta bere eskumenen barruan eta ekonomikoki eskuragarriak diren proiektuak bultzatu beharko lituzkeela iruditzen zaigu.

Tolosa eraikitzen duten ekimen eta eragileek Udalaren laguntza behar eta merezi dutela iruditzen zaigulako, lasterketa honekiko konpromiso bat adieraztea eskatzen dugu proposamen hau sinatzen dugun bi udal talde politikook.

Udal Gobernuak gaizki ulertu bat egon dela eta hurrengo urtean errepikatuko ez dela adierazi badu ere, kontua da, 2025eko edizioa bertan behera gelditu dela diru faltagatik. Gaizki ulertuak eta unean-uneko erabaki desagokiak ekiditeko, aurretiaz diru partida aurrekontuetan jartzea da egokiena. Hori da benetako konpromisoa, eta horregatik eskatzen diogu Tolosako Udalari:

- Har dezala datorren urteko aurrekontuari begira (2026. urtea) konpromiso bat Oriako Txirrindularitza Eskolak jaso ditzan behar dituen baliabide ekonomiko nahikoak "Jose Mari Anza" Memorialaren antolaketa ahalbidetzeko.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Xarles Iturbe Pasaban, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

**Aurkako Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Miren Yosune Sanz Vidal, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi eta Miren Garbiñe Marzol Ormazabal.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, ez du onartu EAJ/PNV eta PSE-EE/PSOE Udal taldeek aurkeztutako proposamena.

**10. PUNTUA. EAJ/PNV UDAL TALDEAK  
AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA: UDAL  
MAILAKO LARRIALDIETARAKO  
PLANGINTZA INTEGRAL BATEN DISEINU  
ETA IDAZKETAREN BEHARRA.**

**PUNTO 10. PROPOSICIÓN PRESENTADA  
POR EL GRUPO MUNICIPAL EAJ/PNV:  
NECESIDAD DE DISEÑO Y REDACCIÓN DE  
UN PLAN INTEGRAL DE EMERGENCIAS A  
NIVEL MUNICIPAL.**

EAJ/PNV Udal taldeak aurkeztu duen proposamenak honela dio:

**UDAL MAILAKO LARRIALDIETARAKO PLANGINTZA INTEGRAL BATEN DISEINU  
ETA IDAZKETAREN BEHARRA.**

Legealdi honetan zehar bi bider izan da hizpide Tolosako Udalean larrialdien gaia alderdi politikoen artean. Lehen aldiz 2024ko martxoan izan zen, pasa berri ziren uholde txiki-ertain batzuk tarteko; eta bigarrena, pasa den 2025eko apirilean, ustekabeko itzalaldia dela eta.

Aurreko legealdian identifikatuta zegoen jada larrialdiak kudeatzeko sistematizazio baten beharra, hain zuzen, hobekuntzak behar genituela udal mailan larrialdiak kudeatzeko plangintzan.

Argi dago, halako egoerak ematen direnean, Udalak era protokolizatu batean erantzuteko beharra duela ahal den neurrian eta izan ditugun elkarriketetan adostasuna egon da beti alderdi politikoen artean.

Udal mailako larrialdi plangintza batek, gutxienez, elementu hauek jaso beharko lituzkeela deritzogu:

- Udal mailako krisi edota larrialdi mahai baten osaketa (politiko-teknikoa).
- Udal mailako giza baliabide zein materialen/ekipoen inguruko zerrenda/inbentarioa.
- Arduren banaketa bat, organigrama bat eta jerarkia bat.
- Udaltzaingoaren eta udal brigadaren eginbeharrak.
- Suhiltzaileekin eta Ertzaintzarekin egituratu beharreko elkarlana.
- Babes Zibilaren egitekoak.
- Udalaz gaindiko baina udalen kontrolpean dauden egituren egitekoak.
- Beste instituzioekin izan beharreko elkarlana definitzea: GFA eta EJ.
- Komunitatearen aktibazioa eta antolaketa, tolosarren arteko elkartasuna.
- Komunikatzeko erabiliko diren kanalak.
- Aseguru-etxeekin egin beharreko lanketa.
- Beste batzuk.

Tamalez, pasa den asteburuan izandako euriteek, ekaitzek, luiziek, errepide mozketek, etb. eta haiek sortutako kalte ugariak berriz ere gaia ekarri dute agendara.

Aditu guztien arabera, aldaketa klimatikoak eraginda, geroz eta ohikoagoak izango dira halako gertaerak (euriteak, lehorteak, haizeteak, elurteak, etb.), maiztasuna haundiago izango omen dute, eta dirudienez geroz eta bortitzagoak izango dira gainera.

Horretaz gain, halako plangintza batek, larrialdi klimatikoak eragindako gertaerez gain, barnebildu beharko lituzke itzalaldiak, beste mota bateko istripuak, etb.

Testuinguru horretan, eta dagoeneko gaia birritan eztabaidagai izan delako legealdi honetan zehar, zera proposatzen du **EAJ-PNVko Udal Taldeak**:

- 6 hilabeteren buruan Tolosako Udalak izan dezala larrialdiak kudeatzeko plangintza integral bat prest, goran aipatutako elementu guztiak gutxienez barne bilduko lituzkeena.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Miren Yosune Sanz Vidal, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du EAJ/PNV Udal taldeak aurkeztutako proposamena.

**11. PUNTUA. ALKATEAK ETA ZINEGOTZI  
DELEGATUEK EMANDAKO DEKRETUEN  
BERRI EMATEA.**

Batzordeko lehendakariak 2025eko maiatzari dagokion dekretuen berri eman du.

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**PUNTO 11. DAR CUENTA DE LOS DECRETOS  
DICTADOS POR EL ALCALDE Y  
CONCEJALES/AS DELEGADOS/AS.**

El Presidente da cuenta de los decretos correspondientes a mayo de 2025.

Quedan informados los miembros del pleno.

**12. PUNTUA. TOKIKO GOBERNU  
BATZARRAK HARTUTAKO ERABAKIEN  
BERRI EMATEA.**

Batzordeko lehendakariak Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien berri eman du.

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira

**PUNTO 12. DAR CUENTA DE LOS  
ACUERDOS ADOPTADOS POR LA JUNTA DE  
GOBIERNO LOCAL.**

El Presidente da cuenta de los acuerdos adoptados por la Junta de Gobierno Local.

Quedan informados los miembros del pleno.

**13. PUNTUA. GALDERAK ETA ESKAERAK.**

Ikus bideoaktan agertzen den grabazioa.

**PUNTO 13. RUEGOS Y PREGUNTAS.**

Véase la grabación que consta en videoacta

Besterik gabe, 21:30ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, udal idazkaria naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, jarduneko alkateak ontzat emanik.

Sin más asuntos que tratar, siendo las 21:30 horas, se da por finalizada la sesión, y yo, la secretaria municipal, certifico, con el visto bueno del alcalde en funciones.

JARDUNEKO ALKATEA  
O.e.

UDAL IDAZKARIA



## TOLOSAKO ETXEBIZITZAREN DIAGNOSTIKOA

Diagnostikoaren txostena  
(erref. E5707 v02)

2025ko maiatza

## DIAGNÓSTICO DE VIVIENDA DE TOLOSA

Informe diagnóstico  
(ref. E5707 v02)

Mayo 2025

**aurkibidea**

|                                                                   |           |
|-------------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>1. Sarrera</b>                                                 | <b>3</b>  |
| <b>2. Ingurune geografikoa</b>                                    | <b>5</b>  |
| <b>3. Joera demografikoak</b>                                     | <b>7</b>  |
| 3.1. Biztanleriaren bilakaera                                     | 8         |
| 3.2. Biztanleriaren banaketa adinaren arabera                     | 9         |
| 3.3. Atzerriko nazionalitatea duen biztanleria                    | 12        |
| 3.4. Migrazio-mugimenduak                                         | 13        |
| <b>4. Analisi sozioekonomikoa</b>                                 | <b>15</b> |
| 4.1. Familia-errenta erabilgarria                                 | 16        |
| 4.2. Biztanleria jardueraren arabera                              | 17        |
| <b>5. Etxebizitza beharra eta eskaria</b>                         | <b>18</b> |
| 5.1. Etxebizitza babestuen eskaria                                | 19        |
| 5.2. Etxebizitza babestuen eskariaren ezaugarriak                 | 22        |
| <b>6. Etxebizitza-parkearen bilakaera eta ezaugarriak</b>         | <b>25</b> |
| 6.1. Etxebizitza-parkearen bilakaera                              | 26        |
| 6.2. Etxebizitza ez-nagusiak                                      | 27        |
| 6.3. Etxebizitza-parkearen ezaugarriak                            | 28        |
| 6.4. Etxebizitza edukitza-erregimena                              | 33        |
| 6.5. Etxebizitzetako familien tamaina                             | 34        |
| <b>7. Etxebizitzaren merkatua</b>                                 | <b>35</b> |
| 7.1. Etxebizitzaren salerosketa prezioa                           | 36        |
| 7.2. Alokairu-erregimeneko etxebizitzak                           | 38        |
| 7.3. Etxebizitza turistikoak                                      | 40        |
| 7.4. Etxebizitzaren eraikuntza                                    | 41        |
| <b>8. Etxebizitza-programen eta -politiken eragina udalerrian</b> | <b>43</b> |
| <b>9. 12/2023 Legearen irizpideak betetzea</b>                    | <b>46</b> |
| <b>10. Laburpena eta ondorioak</b>                                | <b>48</b> |

**índice**

|                                                                                  |           |
|----------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>1. Introducción</b>                                                           | <b>3</b>  |
| <b>2. Entorno geográfico</b>                                                     | <b>5</b>  |
| <b>3. Tendencias demográficas</b>                                                | <b>7</b>  |
| 3.1. Evolución de la población                                                   | 8         |
| 3.2. Distribución de la población por edad                                       | 9         |
| 3.3. La población de nacionalidad extranjera                                     | 12        |
| 3.4. Movimientos migratorios                                                     | 13        |
| <b>4. Análisis socioeconómico</b>                                                | <b>15</b> |
| 4.1. La renta familiar disponible                                                | 16        |
| 4.2. Población en relación con la actividad                                      | 17        |
| <b>5. Necesidades y demanda de vivienda</b>                                      | <b>18</b> |
| 5.1. Demanda de vivienda protegida                                               | 19        |
| 5.2. Caracterización de la demanda de vivienda protegida                         | 22        |
| <b>6. Evolución y características del parque de viviendas</b>                    | <b>25</b> |
| 6.1. Evolución del parque de viviendas                                           | 26        |
| 6.2. Las viviendas no principales                                                | 27        |
| 6.3. Caracterización del parque de viviendas                                     | 28        |
| 6.4. Régimen de tenencia de las viviendas                                        | 33        |
| 6.5. Tamaño familiar de los hogares                                              | 34        |
| <b>7. El mercado de la vivienda</b>                                              | <b>35</b> |
| 7.1. Precio de compraventa de las viviendas                                      | 36        |
| 7.2. Las viviendas en régimen de alquiler                                        | 38        |
| 7.3. Las viviendas turísticas                                                    | 40        |
| 7.4. La construcción de viviendas                                                | 41        |
| <b>8. La incidencia de los programas y políticas de vivienda en el municipio</b> | <b>43</b> |
| <b>9. Cumplimiento de los criterios de la Ley 12/2023</b>                        | <b>46</b> |
| <b>10. Resumen y conclusiones</b>                                                | <b>48</b> |

ESKUD07becb9-4d1b-4eba-8ec5-10583a17f881



SARRERA

1.

INTRODUCCIÓN



## 1. SARRERA

## 1. INTRODUCCIÓN

Merkatuko prezio garestiek eta etxebizitza erabilgarrien eskasiek, batez ere alokairu-erregimenean, eta biztanleriaren sektore zabalen arazo ekonomikoek izugarri zailtzen dute etxebizitza duin bat arrazoizko prezioetan eskuratzea.

Euskadin, emantzipatzeko batez besteko adina 29 urtetik gorakoa da, eta atzerapen horretan faktore erabakigarrienetako bat, zalantzarik gabe, ahalegin ekonomiko neurrigabea eskatzen ez duen etxebizitza bat eskuratzeko zailtasuna da.

Testuinguru horretan, Tolosako Udalak, arazo horretaz jabetuta, konpromisoa hartu du Tolosa Etxebizitza Merkatuko Eremu Tensionatu izendatzeko.

Adierazpen horri esker, prezioak ezartzera eta bizitegi-parke irisgarria indartzera bideratutako erregulazio-mekanismoak aplikatu ahal izango lirateke. Helburu horrekin, Udalak bere etxebizitzaren inguruko tokiko politika sakonki berrikustea eta esku hartzeko tresna berriak garatzea aurreikusten du.

Diagnostiko hau Tolosa bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu izendatzeko prestaketa-prozeduraren parte da.

Dokumentua hamar kapitulutan egituratuta dago, eta honako hauek aztertzen ditu: joera demografikoak, analisi sozioekonomikoa, etxebizitza-premia eta -eskaria, etxebizitza-parkearen bilakaera eta ezaugarriak, salerosketa-prezioaren bilakaera eta alokairu-erregimeneko etxebizitzaren batez besteko errenta, etxebizitzaren eraikuntza (librea eta babestua) eta udalerriko etxebizitza-programen eta -politiken eragina.

Diagnostikoak Tolosako auzoetako adierazleen azterketa egiten du, eta aztertutako aldagai nagusien eta Tolosako udalerrri mugakideen arteko alderaketa ere egiten du.

Los elevados precios del mercado y la escasez de vivienda disponible, especialmente en régimen de alquiler, unido a los problemas económicos de amplios sectores de la población, están dificultando enormemente el acceso a una vivienda digna a precios asequibles.

En Euskadi, la edad media de emancipación se sitúa ya por encima de los 29 años, y uno de los factores más determinantes en este retraso es, sin duda, la dificultad para acceder a una vivienda que no suponga un esfuerzo económico desproporcionado.

En este contexto, el Ayuntamiento de Tolosa, consciente de esta problemática, se ha comprometido a solicitar la declaración de Tolosa como Zona de Mercado Residencial Tensionado.

Esta Declaración permitiría aplicar mecanismos de regulación orientados a contener precios y reforzar el parque residencial accesible. Con ese fin el Ayuntamiento prevé revisar en profundidad su política local de vivienda y desarrollar nuevas herramientas de intervención.

El presente diagnóstico es parte del procedimiento preparatorio dirigido a la declaración de Tolosa como zona de mercado residencial tensionado.

El documento se estructura en diez capítulos, en los que se aborda el análisis de las tendencias demográficas, el análisis socioeconómico, las necesidades y demanda de vivienda, la evolución y características del parque de viviendas, la evolución del precio de compraventa y la renta media de las viviendas en régimen de alquiler, la edificación de vivienda (libre y protegida) y la incidencia de los programas y políticas de vivienda en el municipio.

El diagnóstico realiza un análisis de los indicadores en los diferentes barrios de Tolosa, elaborando también una comparativa de las principales variables analizadas con los municipios limítrofes a Tolosa.

ESKUd07becb9-4d1b-4eba-8ec5-10583a17f881

## INGURUNE GEOGRAFIKOA

# 2.

## ENTORNO GEOGRÁFICO



## 2. INGURUNE GEOGRAFIKO



Tolosa Gipuzkoako ekialdean dago, eta Tolosaldeko hiriburua da. Iparraldean, Hernialde, Anoeta, Irura eta Billabona ditu mugakide; ekialdean, Ibarra eta Leaburu; mendebaldean, Albiztur eta Alkiza; eta hegoaldean, Ikaztegieta, Alegia, Altzo eta Legorreta.

Tolosako udalerriak 37,4 km<sup>2</sup>-ko azalera du eta honako auzo hauek osatzen dute: Berazubi, Bidebieta, Alde Zaharra, Arramele, Rondilla Belate, San Frantzisko Mendebalde, Usabal-Amarotz, Laskoain eta Landa eremuko auzoak (Olarrain, Urkizu, Aldaba, Ugane, Bedaio, Motezkue eta Santa Luzia).

## 2. ENTORNO GEOGRAFICO

Tolosa se encuentra en la parte este de Gipuzkoa, y es la capital de la comarca de Tolosaldea. Limita al norte, con Hernialde, Anoeta, Irura y Billabona, al este con Ibarra y Leaburu, al oeste con Albiztur y Alkiza, y al sur con Ikaztegieta, Alegia, Altzo y Legorreta.

El municipio de Tolosa cuenta con una superficie de 37,4 km<sup>2</sup> y se compone por los siguientes barrios: Berazubi, Bidebieta, Alde Zaharra, Arramele, Rondilla Belate, San Frantzisko Mendebalde, Usabal-Amarotz, Laskoain, y los barrios en zonas rurales (Olarrain, Urkizu, Aldaba, Ugane, Bedaio, Motezkue y Santa Luzia).



## JOERA DEMOGRAFIKOAK

# 3.

## TENDENCIAS DEMOGRÁFICAS



3. JOERA DEMOGRAFIKOAK


3.1 Biztanleriaren bilakaera

> Biztanleria-hazkunde progresiboa azken hamarkadan

Tolosako biztanleria 19.929 lagunekoa da 2023an ( %48,5 gizonak, 9.668, eta %51,5 emakumeak, 10.261).

Udalerriko biztanleria osoaren zifrak gora egin du pixkanaka azken hamarkadan, eta % 5,9ko hazkundera metatu da 2013 eta 2023 artean. Hazkunde esanguratsua da Gipuzkoa osoarekin ( %1,7) eta Euskadirekin ( %0,8) alderatuta.

Auzoen arabera, interes-aldeak daude. Azken 10 urteetan hazkunde handiena izan duten auzoak Arramele eta Rondilla-Belate dira ( %20,8 eta %13,4, hurrenez hurren). Beste auzo batzuetan, berriz, %2 inguruko murrizketa demografikoa izan da (Berazubi, -%2,4 eta Laskoain, -%2,2).



3. TENDENCIAS DEMOGRÁFICAS

3.1 Evolución de la población

> Progresivo aumento poblacional en la última década

La población de Tolosa asciende en 2023 a 19.929 personas (48,5% hombres, 9.668 y 51,5% mujeres, 10.261).

La cifra de población total del municipio ha experimentado un progresivo incremento en la última década, acumulando un aumento del 5,9% entre 2013 y 2023. Se trata de un significativo crecimiento en términos comparativos con el conjunto de Gipuzkoa (1,7%) y Euskadi (0,8%)

Por barrios, se aprecian diferencias de interés. Los barrios que han experimentado un mayor crecimiento en los últimos 10 años son Arramele y Rondilla-Belate (20,8% y 13,4% respectivamente). Por el contrario, en otros barrios ha tenido lugar una contracción demográfica en torno al 2% (Berazubi, -2,4% y Laskoain, -2,2%).

**Biztanleriaren bilakaera auzoen arabera**  
*Evolución de la población por barrios*

| Auzoak<br>Barrios      | 2013   | 2018   | 2023   | Δ 2013-<br>2023 |
|------------------------|--------|--------|--------|-----------------|
| Berazubi               | 2.477  | 2.470  | 2.419  | -2,4%           |
| Bidebieta              | 1.895  | 1.987  | 2.030  | 6,7%            |
| Alde Zaharra           | 2.608  | 2.639  | 2.833  | 7,9%            |
| Arramele               | 2.679  | 3.004  | 3.382  | 20,8%           |
| Rondilla-Belate        | 1.586  | 1.655  | 1.832  | 13,4%           |
| San Frantzisko Mendeb. | 1.849  | 1.789  | 1.834  | -0,8%           |
| Usabal-Amarotz         | 1.358  | 1.334  | 1.347  | -0,8%           |
| Laskoain               | 3.313  | 3.240  | 3.241  | -2,2%           |
| Landa eremuak auzoak   | 1.014  | 980    | 1.037  | 2,2%            |
